

DURANGO 1937KO MARTXOAK 31, BONBARDAKETA



**DURANGO,
31 DE MARZO DE 1937,
EL BOMBARDEO**

JON IRAZABAL AGIRRE

Egilea - Autor: Jon Irazabal Agirre

Argitaratzailea - Edita: Gerediaga Elkarte, Durangoko Udala

Itzulpenak - Traducciones: Arin-arin Itzulpen Zerbitzua

Argazkiak - Fotografías: Gerediaga Elkarte, Italiar Aire Armadako Bulego Historikoaren Artxiboa, Instituto LUCE, A. Arrospide, Sabino Arana Fundazioa

Diseinua eta maketazioa - Diseño y maquetación: Biko Komunikazioa

Inprimategia - Imprenta: Gertu

Lege gordailua-Depósito Legal : BI 00504-2022

ISBN: 978-84-943197-7-8

**DURANGO
1937KO MARTXOAK 31,
BONBARDAKETA**

DURANGO,
31 DE MARZO DE 1937,
EL BOMBARDEO

JON IRAZABAL AGIRRE

An aerial photograph of a landscape, possibly a rural or agricultural area, with a large, billowing plume of white smoke or dust rising from the ground in the center-right. The terrain is dark and textured, with some linear features like roads or paths. The overall tone is dark and grainy.


AURKIBIBIDEA

ÍNDICE

Preludio	9
Preludio	
Bonbardaketaren plangintza	13
Planificación del bombardeo	
Bonbardaketa	21
Ejecución del bombardeo	
Bonbardaketen garapena	24
Desarrollo de los bombardeos	
Bonbardaketaren helburua	45
Finalidad del bombardeo	
Bonbardaketaren ondorioak	57
Secuelas del bombardeo	
Biktimak	59
Víctimas	
Kalte materialak	65
Daños materiales	
Erreakzioak bonbardaketaren ostean	71
Reacciones al bombardeo	
Konklusioak eta epilogo	84
Conclusiones y epílogo	
Dokumentu-iturriak	90
Fuentes documentales	

PRELUDIOA

PRELUDIO



Italiar Aire Armadako Bulego Historikoaren Artxiboan gordetako argazki baten atzealdea.

Reverso de fotografía conservada en el Archivo de la Oficina Histórica de la Fuerza Aérea Italiana.

1977an, Leopoldo Zugazak Durangoko gizarteko tabu bat hautsi zuen *Gaiak* aldizkariaren 4. zenbakiaren zati bat Durangoko bombardaketari eskaini zionean, gertakari bati, hain zuzen ere, orduko historia liburuetan pare bat lerrotan aipatzen zena azal-azal, Manuel Tuñón de Lara irakasleak 1984ko martxoaren 31n emandako hitzaldi batean esan zuen bezala. Hitzaldi hori eman zuen egunean, Gerediaga Elkartearen inguruko lagun talde batek bide luze bati ekin genion argitu beharrez zer gertatu zen zehazki 1937ko martxo-apiril dohakabe hartan.

En 1977, Leopoldo Zugaza rompió uno de los tabús de la sociedad duranguesa al dedicar parte del número 4 de su revista *Gaiak* al bombardeo de Durango, un episodio que los libros de historia venían liquidando en apenas un par de líneas, tal y como señaló el profesor Manuel Tuñón de Lara en su conferencia del 31 de marzo de 1984. Ese día, un grupo del entorno de Gerediaga iniciamos un largo camino con la pretensión de conocer con más detalle qué es lo que sucedió exactamente en Durango en aquellos aciagos meses de marzo y abril de 1937.



Euzko Jauriaritzak 1937an Durangoko bonbardaketa salatzeko argitaratutako liburuxkaren azala.

Portada del folleto editado por el Gobierno Vasco en 1937 denunciando el bombardeo de Durango.

Ibilbide horren lehen fruituak 1987an iritsiko ziren publikoaren eskuetara, batetik Durangoko bombardaketaren 50. urteurrenean antolatu zen erakusketaren bidez, eta bestetik, akats tekniko batzuegatik behar adina kalitaterekin eskaintzerik egon ez zen *Durangoko bombardaketa* izeneko 1988ko dokumentalaren bitartez. Ikusirik bai erakusketak eta bai dokumentalak durangarren artean izan zuten harrera ona, animatu ginen lanean jarraitzea Durangoko Udalaren laguntzarekin, eta gure ikerketen esparrua gero eta gehiago zabaltzera Londres, Madril eta Erromaraino.

Ikerketan sakondu ahala, argituz joan ziren bombardaketaren inguruko ertz ilun asko, dela egiletzaren kontua —argi geratu zen hegazkin italiarrek jaurti zituztela bonbak Durangon, eta ez, ordura arte pentsatzen zen bezala, alemaniarrek—, dela biktimen identifikazioa, kalteen kuantifikazioa edo erreakzio diplomatikoak. Hamasei urte horietako ikerketen emaitza jasota geratu zen 2001ean argitaratutako *1937 martxoak 31 - DURANGO - 31 de marzo de 1937* liburuan. Historia liburuetako harako bi lerroko azalpen azala 300 orrialde inguruko argitalpen mardul bat bihurtu zen, eta nahiz eta liburua mugarri bilakatu Durangoko bombardaketaren inguruko gertakariak argitzeko ahaleginean, ikerketa lanak ez ziren bukatu hor. Aitzitik, 2001etik 2021era bitarteko hogeitau urte haueetan ikerketa ez da behin ere gelditu, eta orain askoz ere informazio gehiago daukagu bombardaketari buruz eta egoera hobean gaude azaltzeko zer gertatu zen, nork planifikatu zuen, nork burutu zuen eta zergatik.

Los primeros frutos de esa andadura se mostraron al público en la exposición que se organizó en Durango en 1987 con motivo del 50 aniversario del bombardeo de la villa vizcaína, así como mediante el malogrado documental de 1988 titulado *Durangoko bombardaketa*. La gran aceptación de ambos eventos por parte de la sociedad duranguesa nos animó a continuar trabajando con la ayuda del Ayuntamiento de Durango, ampliando el marco de nuestras investigaciones a Londres, Madrid o Roma.

La investigación fue arrojando luz sobre numerosos aspectos oscuros del bombardeo, por ejemplo el relativo a la identidad de los autores materiales del ataque —resultó que los agresores habían sido italianos, y no alemanes, como se había creído hasta entonces—, la identificación de víctimas, la cuantificación de los daños o las reacciones diplomáticas. El resultado de estos 16 años de estudios se plasmó en el libro *1937ko martxoak 31 - DURANGO - 31 de marzo de 1937*, publicado en el 2001. Las escuetas dos líneas de los libros de historia se habían transformado en una publicación de unas 300 páginas, lo cual supuso un antes y un después en lo que respecta al esclarecimiento de los hechos acaecidos, aunque sin marcar de ninguna manera el punto final de la investigación. Durante los veinte años transcurridos entre el 2001 y el 2021 la investigación no se ha interrumpido, de manera que ahora disponemos de mucha más información acerca del bombardeo y estamos en mejores condiciones para explicar lo que sucedió, quien planificó el ataque, quién lo ejecutó y con qué finalidad.



Emilio Mola jenerala.

General Emilio Mola.

Sinetsita gaude beharrezkoa dela bildutako informazio hori zabaldu eta gizarteratzea, halako gertakari negargarririk gure artean sekula berriz ez ikusteko esperantzarekin. Horregatik argitaratzen dugu gaur lantxo hau, bere bitartez azaltzeko, labur bada ere, zer gertatu zen benetan 1937ko martxo-apiril hartan eta zergatik egun gogoangarri haie-tan geratu zen idatzita Durangoren izena, gure zoritxarrerako, munduko historiaren liburuan.

Creemos que esa información recopilada debe ser difundida y socializada con la esperanza de que hechos como los narrados no vuelvan a suceder. Por ello editamos esta pequeña publicación, que da a conocer de manera somera lo que aconteció en aquellos meses de marzo y abril de 1937 en los que el nombre de Durango quedó tristemente inscrito en el libro de la Historia Mundial.

BONBARDAKETAREN PLANGINTZA

PLANIFICACIÓN DEL BOMBARDEO

1937ko martxoaren 21ean Francisco Franco jeneralak erabaki zuen Espainiako iparraldea konkistatzea eta behin eta betiko azpiratzea Bizkaia, Santander eta Asturias, artean Errepublikaren kontrolpean jarraitzen baitzuten. Iparraldeko Frontea deitutako guda-lerro horretan nagusitzen bazen, gauza izango zen soldadu eta gerra-tresna ugari bideratzeko beste fronte batzuetara. Era berean, Iparraldeko azken lurralde errepublikanoak konkistatu ezker bere eskuetara pasatuko ziren hainbat lehengai garrantzitsu (burdina eta ikatza, batez ere), eta aukera izango zuen balio handiko hainbat lantegi militarrez jabetzeko. Lantegi horiek harramazkarik gabe harrapatzen bazituen, bere makineria militarra sendotzeko balioko zioten, eta harrapatzeko ahalegi-nean suntsitzen baziren, beste horrenbeste

El 21 de marzo de 1937 el general Francisco Franco decidió conquistar el Norte de España y someter definitivamente a las provincias de Bizkaia, Santander y Asturias, que continuaban bajo control de la República. La eliminación de este frente, conocido como el “Frente del Norte”, le permitiría liberar un numeroso contingente de tropas y pertrechos bélicos que podría destinar a otros frentes de guerra. Asimismo, le permitiría hacerse con el control de numerosas materias primas, como hierro y carbón, y de valiosas industrias militares que robustecerían su maquinaria militar en caso de ser capturadas intactas y que, en caso de ser destruidas en el intento, al menos mermarían la capacidad bélica de las tropas republicanas. Paralelamente, la conquista del Norte le permitiría encauzar el problema

murritzuko zen errepublikarren ahalmen militarra. Azkenik, Iparraldearen konkistak aukera emango zion behin betiko konponetzeko euskal nazionalistek —gehienak katolikoak— Espainiako Errepublikaren alde jarri zirenean sortu zioten arazo politikoa, gerra hura Francok gurutzada erlijioso bat bezala saldu nahi baitzuen eta errepublikano euskaldun katolikoek, Errepublikaren kausa besarkatuz, kontakizun frankista hori errotik gezurtatzen baitzuten. Emilio Mola jeneralak —Iparraldeko Armadako komandante-buruak— hartu zuen bere gain gerra operazio hori zuzentzea.

Iparraldeko ofentsiba aspalditik planifikatuta zegoen, itxura guztien arabera 1937ko hasieratik. Urte hartako martxoaren 2an, Juan Vigón Ingeniarien teniente koronelak hitz hauek idatzi zizkion Alfredo Kindelán jeneralari, Espainia Nazionalen abiazio-buru eta matxinatutako bandoaren aireko indar guztien —Italiako *Aviazione Legionaria* eta Alemaniako Kondor Legioa barne— komandante-buruari: *“bukatuta daukagu plana eta paperean prest egin behar den guztia”*. Esaldi horretan Vigónek darabilen pluralak bidea ematen du pentsatzeko Emilio Mola ere saltsatuta egongo zela plangintza horretan, batez ere kontuan harturik Mola eta Vigón etengabe egon zirela elkarrekin harremanetan Mola istripuz hil zen arte. Gutun horretan Vigónek Kindeláni egiten zion eskaera funtsezkoa da Durangoko bonbardaketa bere testuinguruan kokatzeko: *“Mesedez, aztertu ezazu laguntzarik eman ote diezaguketen Aragoiko [frontetik], Logroñoako aerodromoetan*

político que le estaba generando el apoyo de los nacionalistas vascos, mayoritariamente católicos, a la República española, cuando el conflicto bélico se pretendía presentar al mundo como una cruzada religiosa. El general Emilio Mola, comandante en jefe del Ejército del Norte, asumió la dirección de dicha operación bélica.

La ofensiva del Norte había sido planificada desde tiempo atrás, probablemente desde inicios de 1937. El 2 de marzo de ese año, Juan Vigón, teniente coronel de Ingenieros, en misiva dirigida al general Alfredo Kindelán, Jefe del Aire de la España Nacional y comandante en jefe de todas las fuerzas aéreas del bando sublevado, incluyendo la Legión Cóndor alemana y la *Aviazione Legionaria* italiana, escribía: *“tenemos ultimado el plan y completado en el papel todo lo indispensable”*. El uso del plural en esa frase sugiere la implicación en dicha planificación del general Emilio Mola, dada la relación constante que mantenían entre sí Vigón y Mola hasta el fallecimiento de este último. En su carta, Vigón formulaba una petición que resulta clave para contextualizar el bombardeo de Durango: *“Te ruego estudies si del [frente] de Aragón nos podrían prestar algún apoyo situándose en aeródromos de Logroño para actuar aquí sin detener aquello”*. Días más tarde, el 10 de marzo, Vigón remitió a Alfredo Kindelán, Jefe del Aire de la España Nacional, la documentación que recogía los objetivos previstos para la aviación. En este documento, titulado “Plan General de Operaciones sobre Vizcaya”, ya se contemplaban los bombardeos de Durango y Elorrio.

kokatuz posible egiteko hemen ekitea hangoa geratu gabe". Handik egun batzuetara, martxoaren 10ean zehazki, Vigónek dokumentu bat bidali zion Alfredo Kindeláni, Espainia Nazionaleko abiazio-buruari, abiazioari esleitutako helburuekin. *Bizkaiaren Gaineko Operazioen Plan Orokorra* zen dokumentu horren izenburua, eta jadanik aurreikusita zegoen bertan Durango eta Elorrio bonbardatzea.

Dokumentu horretan, abiazioari zegokion atalak bi egile izan zituen: Wolfram von Richthofen Estatu Nagusiko teniente koronela —Alemaniako Kondor Legioko Estatu Nagusiko burua—, eta Kondor Legioko logistika-zerbitzua. Planak zehazteko fasea martxoaren 22an hasi zen. Hil horren 24an eta 26an, Richthofen-ek eta Vigón koronelak elkarrekin finkatu zituzten *"Kondor Legioaren ekintza posible batzuk"*, eta horiekin batera, nabarmenki, instrukzio hau: *"Aireko indarrek tokiko eta sektoreetako erreserbak erasoko dituzte, KONTUAN HARTU GABE POPULAZIO ZIBILA"*.

Alfredo Kindelán-en egunkari pertsonalaren oharretatik erakartzen denez, Iparraldeko ofentsibako operazioen plangintzari buruzko informazioa etengabe helarazi zitzaizen matxinatuen gainerako agintari militarrei, eta denek adostu eta berretsi zuten.

1937.03.23

Goizean goiz, Bilbori buruzko txostena eta proiektuak Sander-i [Hugo Sperrle dibisio-jenerala, Kondor Legioko komandante-burua]. Dena onartzen du".

Este documento inicial fue desarrollado, en lo que se refiere al uso de la aviación, por el teniente coronel del Estado Mayor doctor Wolfram von Richthofen, jefe del Estado Mayor de la Legión Cóndor alemana, y por el servicio de logística de dicha Legión Cóndor. El día 22 de marzo se inició la fase de concreción de planes. El 24 y el 26, Richthofen determinó con el coronel Vigón diversos *"supuestos de acción de la Legión Cóndor"*, destacando entre ellos el de que *"Las fuerzas aéreas atacarán las reservas locales y de los sectores, SIN CONSIDERACIÓN DE LA POBLACIÓN CIVIL"*.

Según se desprende de las anotaciones del diario personal de Alfredo Kindelán, la planificación de las operaciones para la ofensiva del Norte fue constantemente puesta en conocimiento, consensuada y refrendada por los demás mandos militares sublevados.

23.03.1937

"Temprano, informe y proyectos sobre Bilbao a Sander [general de división Hugo Sperrle, comandante jefe de la Legión Cóndor]. Aprueba todo"

25.03.1937

"Citado con Vigón para las 11 horas para una mejor panorámica global. Entonces, llamada por teléfono. Comunican que Mola está allí y que quiere estar [presente]. Me preparo bien. Cuando llega Mola, le resulta muy costoso. Volvemos a examinar todo desde el principio..."

Ordine d'operazione N.° 31
Soria li 31/3/37-XV-
ore

Riferim. to carta Michelin 1:400000

Al Comando 213ª Squad. in Soria per mano
" 214ª Squad. Soria mano
" Sezione B.T. Soria mano
e p.c. al Comando A.L. Vitoria auto

Oggetto: Bombardamenti di Durango e di Elorrio. -

Situazione: E' imminente un'azione dell'esercito nazionale sul settore di Bilbao. Le posizioni orientali di tale fronte sono presidiate da truppe che sono in gran parte acquartierate nei paesi di Elorrio e di Durango, nei quali esistono anche autoparchi e magazzini di materiali bellici.

La difesa a.a. delle località sopra-indicate è affidata a mitragliatrici e cannoncini Oerlikon. Non sono segnalati reparti di caccia in prossimità di dette località. -

Compito: Bombardare reiteratamente Durango ed Elorrio nella giornata del 31/3/37 - allo scopo di distruggere i depositi e colpire le truppe presenti negli abitati. -
Concetto d'azione: Azione con scorta, di sorpresa.

L'azione sarà ripetuta al più presto sulle zone non colpite dal primo tiro.

Ripartizione dei compiti 213ª Squadriglia Elorrio

214ª Squadriglia Durango

La Sezione B.T. completerà le pattuglie.

Modalità di navigazione

Ora di partenza: 0730 Modalità apparecchi isolati - Formazione delle pattuglie sul campo.

Ora d'incontro con la caccia: 0800 Modalità sul campo di Logroño, la formazione sarà raggiunta da 18 Cr.32 di tal campo.

Ora di attacco: 0830

ROTTE E QUOTE:

Da Soria a Logroño = km. = Rv. Quota 1800 m.

Da Logroño a Idiazabal = km. = Rv. Quota 1600 "

Da Idiazabal agli obbiett. = km. = Rv. Quota 1600 "

Dagli obbiett. a Logroño = km. = Rv. Quota 1600 "

Da Logroño a Soria = km. = Rv. Quota 1800 "

Aeroporto di atterraggio: Soria Modalità apparecchi isolati

Aeroporti di atterraggio eventuale: Logroño-Vitoria. -

FORMAZIONI (Distanze, intervalli) Ciascuna Squadriglia a cuneo di 5 apparecchi, intervallo m. 60

AUTONOMIA quattro ore

Formazioni di attacco (distanze, intervalli) quella di navigazione.

Puntamento (individuale, di pattuglia) di pattuglia

Tipo e numero di bombe N.20 bombe da Kg.50 per la 214^a Squadriglia e n.18 per
(per la 213^a Squad. e Sezione S.T.)

Lunghezza della serie m.350

Quota di attacco (relativa) m.1400

Direttrici di attacco (Rv.) Idiagabal-obiettivo

Dati di tiro

Fotografie panoramiche e planimetriche da ciascuna pattuglia. Sviluppare urgentemente.

Collegamenti

Stazione principale Soria A E R

Stazioni ausiliarie Logroño

Onda di lavoro con la stazione principale: m. 60

Onde di riserva 850 (Radiofaro a richiesta) 900 con Logroño

Contassegno del collegamento principale: A E R

Contrassegni per le stazioni ausiliarie:

Onda di lavoro per gli apparecchi:

Modalità particolari:

Collegamenti a vista:

Servizi

Direttore dei servizi a terra durante l'azione:

Illuminazione del campo

Rifornimento carburante e lubrificante normale

Rifornimento munizioni uguale a quello del presente

Segnali di atterraggio

Collegamenti r. t., telegrafici, telefonici del campo:

Varies

SEDE DEL SOTTOSCRITTO DURANTE L'AZIONE: Capo-pattuglia 214^a Squadriglia.

Il Comandante
(Gen.Col.A.L.-U.Marelli)

1937.03.25

Hitzordua Vigónek 11:00etarako, panoramika global hobea izateko. Orduan, telefono deia. Jakinarazten dute Mola han dagoela eta [presente] egon nahi duela. Ondo prestatzen naiz. Mola datorrenean, oso garestia iruditzen zaio. Berrero aztertzen dugu dena hasieratik...”

1937.03.26

Hamabietan Vigónek. Berrero aztertzen dugu dena. 30ean hasi behar du eraso (Molaren agindua), baina artilleria 31rako baino ez du izango prest. Ofizialki adierazten dut guk 31n baino ezin dugula, azken prestaketekin ziur egoteko. Horrek ostea dakar, ze Molak abiazioa iraintzen du Francoren aurrean, atzerapenagatik. Vigónek hika egiten dio Francori, eta telefonoz esan dio nik sorbaldak jaso ditudala Molaren eskakizunaren aurrean”.

“Hitzartuta geratu da Vigonekin:... /...

3. Nire proposamenak abiazioaren ekintzari buruz, eta horrekin batera grabitate-zentroenak, eztabaidarik gabe pasatzen dira”.

1937.03.27

“Eman dira jada lekualdatze aginduak. Sander jakinaren gainean jarria. Inolako oharrik ez”.

1937.03.29

“Vigónek. Berrero eztabaidatzen dugu dena puntuz puntu. Ezer berririk ez.

1937.03.30

“11:00etan lur hartzen du Sander-ek bere segizioarekin eta Velani jeneral italiarrarekin. San-

26.03.1937

“A las doce con Vigón. Vuelta a hablarlo todo. Debe atacar (orden de Mola) el 30, pero la artillería la tendrá lista solo para el 31. Demasiado estúpido. Declaro oficialmente que nosotros solo podemos el 31, para estar seguros con los últimos preparativos. Esto trae cola, porque Mola insulta ante Franco a la aviación por el retraso. Vigón, que se tutea con Franco, ya ha dicho por teléfono a Franco que yo me he encogido los hombros ante la exigencia de Mola.”

“Queda convenido con Vigón: .../...

3. Mis propuestas sobre la acción de la aviación, y con ello de los centros de gravedad, pasan sin discusión”

27.03.1937

“Dictadas ordenes de traslado. Sander [general de división Hugo Sperrle, comandante jefe de la Legión Cóndor], puesto al corriente. Ninguna observación”

29.03.1937

“Con Vigón. Volvemos a discutir todo punto por punto. Nada nuevo”.

30.03.1937

“A las 11 horas aterriza Sander [general de división Hugo Sperrle, comandante jefe de la Legión Cóndor] con séquito y con el general italiano Velani. Con Sander, a Vigón y su general Solchaga, que no tiene ningún interés por nada. Breve saludo de forma. Dictadas a mediodía las órdenes de ataque”.

der-ekin, Vigóni eta honen jeneral Solchagari, ezereen interesik ez daukanari. Agur formal laburra. Eraso-aginduak emanda eguerdian”.

Die Wehrmacht aldizkariak, Alemaniako Gerra Ministerioaren organo ofizialak, 1939ko maiatzaren 30ean zenbaki berezi bat atera zuen Espainiako gerran Alemaniak zeukan parte-hartzeari buruz. Edizio hartan, Hugo Sperrle dibisio-jeneralak *“Wir kämpften in Spanien”* (Espainian borrokatu gara) izeneko artikulua bat argitaratu zuen zeinetan tolesik gabe aitortzen zuen bera izan zela, Richthofen-ekin batera, Durango, Gernika eta beste zenbait herritako “esperientzien” planifikatzailea. Arestian aipatu ditugun erreferentziek erakusten digute nola planifikatu zuten Emilio Mola jeneralak eta bere Estatu Nagusiak 1937ko martxoaren 31tik aurrera martxan jarri zen Iparraldeko Fronteko ofentsiba orokorra.

El 30 de mayo de 1939, el general de división Hugo Sperrle publicó en el *Die Wehrmacht* (órgano oficial del Ministerio de Guerra alemán), con motivo de la edición de un número extraordinario sobre la participación alemana en la guerra de España, un artículo titulado *“Wir kämpften in Spanien”* (Hemos luchado en España), en el cual se reconocía junto a Richthofen como planificador de las “experiencias” de Durango, Gernika, etc. Las referencias mostradas en las líneas precedentes dan una idea de cómo planificaron el general Emilio Mola y su Estado Mayor la ofensiva general del Frente del Norte desarrollada a partir del 31 de marzo de 1937.

BONBARDAKETA

EJECUCIÓN DEL BOMBARDEO

Azken mende erdi honetan nagusi ibili den ustea izan da Kondor Legioak bonbardatu zuela Durango, baina, nahiz eta bonbardaketaren planifikazioa espainiarren eta alemaniarren arteko lana izan, bonbardaketa bera Italiako *Aviazione Legionariako* hegazkinek egin zuten. Gogoratu behar da martxo hasieran italiarrek izugarrizko astindua hartu zutela Guadalajarako borrokaldean eta orduetik aurrera *Aviazione Legionaria* Kondor Legioaren eskema operatiboan integratutako unitate militar gisa jardun zela eta Legiotik jasotzen zituela bere aginduak.

Aireko indarrek Nafarroako Brigadei laguntzeko agindua, 37/3/31n (Kondor Legioa L/a) izeneko dokumentuan jasotzen dira hegazkinek egin behar zituzten ekintzak, eta

En contra de la opinión generalizada, que durante más de medio siglo ha atribuido a la Legión Cóndor la autoría del bombardeo de Durango, y aunque la planificación del mismo fue hispano-germana, la ejecución material del ataque fue obra de la *Aviazione Legionaria* italiana. Es de reseñar que tras la derrota sufrida por los italianos en Guadalajara a inicios de marzo, a efectos prácticos la *Aviazione Legionaria* actuaba por aquellas fechas como una unidad militar integrada en el esquema operativo de la Legión Cóndor, de la cual recibía sus órdenes.

Es en el documento titulado “*Orden de colaboración de apoyo de las fuerzas aéreas con las Brigadas de Navarra el 31 / 3 / 37 (Legión Cóndor L/a)*”, donde se plasman las acciones

helburuak esleitzen zaizkie aireko unitate zehatzei. Dokumentu horretan adierazten zenez, garai hartan basea Sorian eta Logroñon zeukan Aviazione Legionaria italiarrari esleitu zitzaion Durango eta Elorrio bonbardatzea.

Italiako bonbardaketa-taldea Soria/Logroño

*“Eskatzen da operazioaren egunean Elorrio-Durangoko herriak eraso daitezela bomba astu-
nekin, lehenengo aldiz 08:00etan, eta errepika
daitezela erasoak behar adina aldiz, eragoz-
teko indar gorriei eraso-sektorera hurbiltzea.
Logroñoeko ehiza-taldeek emango dute babesa.
Borroken eta behaketen harian ikusten bada
badirela beste helburu batzuk eraso nahi dire-
nak edo erasotzea merezi dutenak, jakinarazi
bedi lantzean irratiz. Bide beretik jakinarazi
bitez, arren, burututako erasoak”.*

Gorago esan dugun bezala, 1937ko martxoaren hasieran tropa italiarrek Guadalajaran hartu zuten jipoiaren ostean italiarrak berantolaketa-prozesu batean murgilduta zeuden, eta hura amaitu bitartean *Aviazione Legionaria*, zeinaren zati bat baitzen Soriako bonbardaketa-taldea, Kondor Legioari atxikitako unitate bat bezala aritu zen. Mendekotasun horren erakusgarri da Richthofen-ek bere egunkarian idatzi zuena martxoaren 28an, ofentsiba orokorrerako hiru egun falta zirenean:

“Italiako aireko indarrekin genuen harremana modu berezi batean gauzatu zen. Guadalajarako operazioa amaitu ondoren Italiako

a desarrollar por la aviación y se asignan los diferentes ataques a unidades aéreas concretas. A la *Aviazione Legionaria* italiana, estacionada a la sazón en Soria y Logroño, se le asignaba la ejecución del bombardeo de Durango y Elorrio.

Grupo de bombardeo Italiano Soria/Logroño

“Se ruega ataque el día de la operación los pueblos de Elorrio-Durango con bombas pesadas, la primera vez a las 8.00, repitiéndose estos ataques tantas veces como sea preciso, para impedir que acudan fuerzas rojas al sector de ataque. La protección se efectuará por los grupos de caza de Logroño. Otros objetivos merecedores o deseados que resulten de la lucha y del reconocimiento se comunicará cada vez por radio. Se ruega que por el mismo conducto se comuniquen los ataques efectuados.”

Tal y como señalamos anteriormente, tras el varapalo sufrido en Guadalajara por las tropas italianas a inicios de marzo de 1937, los italianos se hallaban sumidos en un proceso de reorganización hasta cuya culminación la *Aviazione Legionaria*, a la que pertenecía el grupo de bombardeo ubicado en Soria, actuó como unidad adscrita a la Legión Cóndor. Muestra de esa dependencia es lo que redactó en su diario Richthofen el 28 de marzo, a falta de tres días para la ofensiva general.

“La relación con las fuerzas aéreas italianas se configuró de una forma peculiar. Cuando un alto mando italiano se vio forzado, tras

goi-agintari bat behartua aurkitu zenean bere tropak gutxienez bi hilabeterako erretiratze-
ra, berrantolatuak izateko, hautsita zeuden
agintari italiarren eta espainiarren arteko
lokarriak. Agintaritzak italiarrak alemaniarren
bitartez jakin zuen Bilboren aurkako planen
berri. Espainiarrek oso modu lausoan erantzun
zioten Velardi jeneralak [sic - Abizen zuzena:
Velani] —aireko indar italiarren komandan-
teak— egin zien laguntza-eskaintzari. Ikusirik
hori, Velardik komandante alemanarengana jo
zuen erregutzera eduki zezala informatuta eta
esleitu ziezazkiola zereginak. Hortik sortu zen
mendekotasun adiskidetsuko harreman bat,
bizirik jarraitu zuena Bilbo hartu zen arte eta
Bruneteko borrokaldietaraino, harik eta Italia-
ko lurreko armada berriro borrokara itzuli zen
arte, eta harreman horri edozein laztasun ken
zekiokeen tratu diplomatiko batekin. Italiako
aire-indarren agintaritzak Gasteizera eraman

el final de la operación de Guadalajara, a
retirar sus tropas durante dos meses por lo
menos, a fin de reorganizarlas, los hilos entre
los superiores italianos y los españoles esta-
ban rotos. El mando ital[iano] se enteró por
los alemanes de los planes contra Bilbao. La
oferta de apoyo que hizo el comandante de
las fuerzas aéreas ital[ianas], general Velardi
[sic- correcto: Velani], fue contestada por los
españoles de una forma bastante vaga. Velar-
di, ante ello, se dirigió al comandante alemán
con el ruego que se le informara y les fueran
asignadas tareas. De ahí resultó una relación
de amistosa subordinación, que continuó has-
ta la toma de Bilbao y durante los combates
por Brunete, hasta la reintegración por tanto
del ejército de tierra ital[iano], y a esta rela-
ción, con un trato diplomático, podía quitár-
sele cualquier dureza. El mando aéreo italiano
trasladó su sede a Vitoria, fue informado dia-



Soriako aerodromoa eta Savoia 81 Pipistrelli
bonbarderoen eta Fiat CR 32 ehiza-hegazkinen
ikurrak.



Campo de aviación de Soria y emblemas de
los bombarderos Savoia 81 Pipistrelli y los cazas
Fiat CR 32.

zuen bere egoitza, eta egunero hartu zuen buruzagi alemanengandik egoeraren eta proiektuen berri, italiarrek aginduztat hartu zituztenak eta arabera bete”.

1936ko uztailaren 18ko altxamenduaren ostean Benito Mussolinik hainbat motatako laguntza militarra eskaini zion Francisco Franco jeneralari, eta horietako bat izan zen Aviazione Legionaria taldea. Aeroplane aldizkariak 1939ko ekainaren 28an argitaratu zituen datuen arabera, Espainiako gerrak iraun zuen hiru urteetan “*Operazione Militare Spagna*” (OME) delakoan —agintari italiarrek erabiltzen zuten kode-izena Francoren aldeko beren interbentzioari deitzeko— 6.000 pertsona inguruk hartu zuten parte, 5.318 bonbardaketa egin zituzten, 155 lurreko eraso eta 266 borrokaldi, eta guztira 11.584.420 kilo lehergai jaurti eta 1.042.712 kartutxo tiratu zituzten.

Antolakuntzari dagokionez, Italiako aire-indarra bi taldetan banatuta zegoen: Balear Uharteetako Indarra eta Kontinentekoa. Azken hau Vincenzo Velardi jeneral pilotuaren agindupean zegoen eta berari egokitu zitzaion Iparraldeko Fronteko operazioak egitea. Nola arrazoi politikoengatik laguntza militar hori ezkutatu beharra zegoen Ez-Interbentzio Batzordeari, Espainiako gerrakintzetan parte hartu zuten atzerritarrek goitizenak edo izen asmatuak erabili zituzten, eta horrek zaildu egiten digu batzuetan pertsona batzuk identifikatzea.

riamente por la jefatura alemana acerca de la situación y los proyectos, que ellos valoraron como órdenes, cumpliéndolas así”.

La *Aviazione Legionaria* fue uno de los apoyos militares ofrecidos por Benito Mussolini al general Francisco Franco tras la sublevación del 18 de julio de 1936. Según cifras publicadas por la revista *Aeroplano* el 28 de junio de 1939, durante los tres años de contienda participaron en la “*Operazione Militare Spagna (OMS)*”, nombre clave con el que las autoridades italianas denominaban su intervención en España, en torno a 6.000 personas, se efectuaron unos 5.318 bombardeos, 155 ataques terrestres y 266 combates en los que se lanzaron 11.584.420 kilos de explosivos y se dispararon 1.042.712 cartuchos.

Organizativamente, la fuerza aérea italiana estaba dividida en dos contingentes, la fuerza de las Baleares y la del Continente, siendo esta última, bajo las órdenes del general piloto Vincenzo Velardi, la ejecutora de las operaciones del Frente del Norte. Dado que se trataba de una intervención militar que por razones políticas debía pasar inadvertida al Comité de No Intervención, el personal participante en ella hizo uso de alias o nombres ficticios, lo que genera en algunos casos dificultades a la hora de identificar a los actuantes.

BONBARDAKETEN GARAPENA

DESARROLLO DE LOS BOMBARDEOS

1937ko martxoaren 31n, 07:15ean, Soriako aerodromotik aireratu ziren bonbardaketa astuneko (BP) 24. taldeko 214. eskuadrillako *Savoia 81* motako lau bonbardero, 1, 2, 5 eta 6 zenbakikoak. Hegazkin bakoitzak aldean zeramatzan 50 kiloko 20 bonba eta 20 kiloko 4 su-bonba. Lau hegazkinen misioa zen Durango bonbardatzea, hala agindu baitzien Ferdinando Raffaelli, Italiako *Aviazione Legionaria*ko 21. bonbardaketa-eskuadrak Espainian zeukan komandanteak.

Espainian borrokatzen ari ziren militar italiar guztien antzera, Durangoko bonbardaketa-operazioa bere 5 zenbakiko *Savoia 21* hegazkinetik zuzenduko zuen Ferdinando Raffaelli tenienteak ere goitizen baten azpian —*Umberto Marelli*— ezkutatzen zuen

El 31 de marzo de 1937, a las 07:15 horas, despegaron del aeródromo de Soria los cuatro bombarderos Savoia 81, números 1, 2, 5 y 6, pertenecientes a la escuadrilla 214 del grupo 24 de bombardeo pesado (BP). Cada avión transportaba 20 bombas de 50 kilos y 4 bombas incendiarias de 20 kilos con las que se dirigieron a cumplimentar la orden que habían recibido de Ferdinando Raffaelli, comandante de la 21 escuadra de bombardeo de la *Aviazione Legionaria* italiana destinada a España, y que consistía en bombardear la localidad de Durango.

Al igual que el resto de los militares italianos destacados en España, Ferdinando Raffaelli, que dirigirá desde el Savoia 21 número 5 la operación del bombardeo de Durango, ocultaba

bere benetako izena. Bestalde, eskuadrillak *Pipistrelli* (saguzarra) izena emana zion bere buruari, eta horregatik eskuadrillako hegazkin guztiek saguzar bat zeukaten marraztuta atzealdean, zirkulu baten barruan. Goiz hartan, lau bonbarderoekin batera orobat aireratu zen Iginio Mencarolik gidatutako 213. eskuadrilla. Misioa: Elorrio bonbardatzea.

Hauk dira Durango bonbardatzera abiatu ziren lau hegazkinetako eskifaiaik:

5 zenbakiko Savoia 81

- **Ferdinando Raffaelli**, teniente koronel pilotua
- **P. Cesare Villa**, teniente pilotua
- **Mario Bonomi**, sarjentu pilotu nagusia
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Paolo Rapetti**, motorista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Marcello Berlanda**, irрати-telegrafista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Dino Marconi**, armamentu arduraduna
- **Giovanni Ghisotti** sarjentu, muntatzailea

1 zenbakiko Savoia 81

- **Gildo Simini**, kapitain pilotua
- **Aldo Gerardi**, teniente pilotuordea
- **Giulio Palombi**, pilotua
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Mario Pianella**, motorista
- **Arturo Cuturi** sarjentu nagusia, irрати-telegrafista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Armando Ruggero**, armamentu arduraduna

su verdadera identidad bajo un seudónimo, *Umberto Marelli*. Por su parte, la escuadrilla había adoptado el apelativo de *Pipistrelli* (murciélago), y por ello cada avión ostentaba como distintivo en su parte trasera un círculo con el dibujo de un murciélago. Tras los cuatro bombarderos despegó la escuadrilla 213, comandada por Iginio Mencaroli, cuya misión consistía en bombardear la villa de Elorrio.

Los cuatro bombarderos que se dirigían a bombardear Durango estaban tripulados por los siguientes aviadores:

Savoia 81 número 5

- Teniente coronel piloto **Ferdinando Raffaelli**
- Teniente piloto **P. Cesare Villa**
- Sargento mayor piloto **Mario Bonomi**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] motorista **Paolo Rapetti**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] radiotelegrafista **Marcello Berlanda**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] armamento **Dino Marconi**
- Sargento montador **Giovanni Ghisotti**

Savoia 81 número 1

- Capitán piloto **Gildo Simini**
- Subteniente piloto **Aldo Gerardi**
- M. II. piloto **Giulio Palombi**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] motorista **Mario Pianella**
- Sargento mayor radiotelegrafista **Arturo Cuturi**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] armamento **Armando Ruggero**

- **Filippo Musumeci** sarjentu nagusia, muntatzailea
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Angelo Zoia**, argazkilaria

6 zenbakiko Savoia 81

- **Giulio Beccia**, teniente pilotua
- **Rodolfo Villa**, teniente pilotuordea
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Luigi Buscaldi**, motorista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Tito Blasutta**, irрати-telegrafista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Ezio Lumia**, armamentu arduraduna
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Pietro Vargin**, muntatzailea

2 zenbakiko Savoia 81

- **Ezio Ceretta**, teniente pilotua
- **Mario Magni**, sarjentu pilotu nagusia
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Sileno Passeri**, motorista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Mario Biagioni**, irрати-telegrafista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Ezio Mariatti**, armamentu arduraduna
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista] **Stefano Turi**, muntatzailea

07:55ean, Logroñoeko zeruan bonbarderoek bat egin zuten Logroñoeko basetik aireratu-tako 24. eskuadrillako bederatzi *Fiat CR-32* ehiza-hegazkinekin, zehazki hauekin:

- **117 zenbakiko Fiat CR.32** hegazkina **Armando Francois** –goitizenez *Arturo Martori*– kapitain pilotuak gidatua.

- Sargento mayor montador **Filippo Musumeci**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] fotógrafo **Angelo Zoia**

Savoia 81 número 6

- Teniente piloto **Giulio Beccia**.
- Subteniente piloto **Rodolfo Villa**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] motorista **Luigi Buscaldi**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] radiotelegrafista **Tito Blasutta**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] armamento **Ezio Lumia**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] montador **Pietro Vargin**


Savoia 81 número 2

- Teniente piloto **Ezio Ceretta**
- Sargento mayor piloto **Mario Magni**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] motorista **Sileno Passeri**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] radiotelegrafista **Mario Biagioni**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] armamento **Ezio Mariatti**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista] montador **Stefano Turi**

A las 07:55 horas, a la altura de Logroño se unieron al grupo nueve cazas Fiat CR-32 de la 24ª escuadrilla con base en Logroño. Concretamente, los aeroplanos:

- **Fiat CR.32 número 117**
Pilotado por el capitán piloto **Armando Francois**, alias *Arturo Martori*

- 131 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina
Alfiero Mezzetti –goitizenez *Mariani*–
teniente pilotuak gidatua.
- 509 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina
Giovanni Beretta –goitizenez *Romualdo
Bianchedi*– tenienteorde pilotuak gidatua
- 69 zenbakiko Fiat 32 hegazkina
Giuseppe Recchi –goitzen ezezaguna–
tenienteorde pilotuak gidatua
- 151 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina
Giulio Cesare –goitizenez *Angelo Tranca*–
sarjentu nagusi pilotuak gidatua
- Fiat CR.32 número 131
Pilotado por el teniente piloto **Alfiero
Mezzetti**, alias *Mariani*
- Fiat CR.32 número 509
Pilotado por el subteniente piloto **Giovanni
Beretta**, alias *Romualdo Bianchedi*
- Fiat CR.32 número 69
Pilotado por el subteniente piloto
Giuseppe Recchi, de alias desconocido.
- Fiat CR.32 número 151
Pilotado por el sargento mayor piloto **Giulio
Cesare**, alias *Angelo Tranca*



Durangoko bonbardaketari buruzko oharrek lurreko bonbardaketako 214. eskudrillaren egunkarian.

Anotaciones sobre el bombardeo de Durango en el diario histórico de la escuadrilla 214 de bombardeo terrestre.

DATA	ORA di partenza	ORA di arrivo	QUOTA in metri	TIPO di volo	EQUIPAGGIO	CARICO DELLE MUNIZIONI	SCOPO DEL VOLO	NOTE
21-2-57	07:30	08:00	1000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Ricciardi Ten. pl. Villa M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona Ten. pl. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	1. 2 bombe da 250 di 10 1. 4 munizioni da 50 - in barile	Sambard Darsago	Scoperti, alla base per osservazione Astronomica alla quota 2000 -
	07:30	08:30	1000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	idem	Sambard Darsago	
	14:50	15:50	1000 / 80	SB N. 2	Ten. pl. Ricciardi Ten. pl. Villa M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	11. 20 bombe da 50 -	Sambard, 10 mun a Darsago Sambard - Monte	
	14:25	16:30	1000 / 100	SB N. 2	Cap. pl. Sironi Ten. pl. Ricciardi M. S. pl. Bambi M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	11. 12 bombe da 50 -	Sambard, di Darsago	
	14:30	16:30	1000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	11. 20 bombe da 50 -	Sambard, 10 mun a Darsago	

DATA	ORA di partenza	ORA di arrivo	QUOTA in metri	TIPO di volo	EQUIPAGGIO	CARICO DELLE MUNIZIONI	SCOPO DEL VOLO	NOTE	
21-2-57	18:00	18:00	2000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Ricciardi Ten. pl. Villa M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	1. 11	Scoperti alla Monte - Vigna		
1-2-57					Non si effettuano voli				
2-2-57	17:00	18:00	1000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Ricciardi Ten. pl. Villa M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	1. 12 bombe da 50 -	Sambard Darsago		
	17:00	18:00	1000 / 100	SB N. 2	Ten. pl. Ricciardi M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	1. 20 bombe da 50 -	idem		
	18:00	18:00	1000 / 100	SB N. 2	Cap. pl. Sironi M. S. pl. Bambi M. S. mt. Baccaloni M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Lancia M. S. mt. Varona M. S. mt. Corchia M. S. mt. Vanni M. S. mt. Pizzari M. S. mt. Bazzani M. S. mt. Albonetti M. S. mt. Turi	1. 12 bombe da 50 -	idem Sambard - Vigna		
3-2-57					Non si effettuano voli				

- **392 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina**
Bruno Sartori —goitizenez *Giovanni Corona*— sarjentu pilotuak gidatua
- **106 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina**
Giuseppe Alessandri —goitizenez *Alessi*— sarjentu nagusiak gidatua
- **98 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina**
Giulietti Adamo —goitizenez *Ugo Guglielmotti*— sarjentu pilotuak gidatua.
- **206 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina**
Fiorenzo Milella —goitzen ezezaguna— sarjentu pilotuak gidatua.

Hegazkin eta pilotu horietako batzuk martxoaren 29an heldu ziren Logroñoko aerodromora Burgo de Osmakotik.

Hegazkin guztiak Logroñoko zeruan elkartu zirenean, talde osoa abiatu zen Gipuzkoako Idiazabalera, 1.600 metroko altueran hegan. Bidean, Giulio Beccia tenienteak dardara kezkarri batzuk sumatu zituen bere 6 zenbakiko *Savoia 81* hegazkinaren buztanean, eta basera itzuli zen, hantxe lur hartzeko 08:05ean. Halabehar hutsez, beraz, arazo mekaniko horri esker 1.080 kilo bomba gutxiago jausi ziren Durangon egun hartan. Taldeko gainerako bonbardero eta ehiza-hegazkinak bira egin zuten Idiazabal gaineko zeruan eta muturra zuzendu zuten bakoitzak izendatuta zeukan helbururantz: Durangora zuzendu ziren bonbardaketa astuneko 214. eskuadrillako *Savoia 81* bonbarderoak eta 5. eskuadrillako Fiat CR.32 ehiza-hegazkinak (5. eskuadrilla horri 25 zenbakia emango zioten 1937ko maiatzaren 7an); eta Elorriora jo zuten 213. eskuadrillako *Savoia 81* bonbardero

- **Fiat CR.32 número 392**
Pilotado por el sargento piloto Bruno Sartori, alias *Giovanni Corona*
- **Fiat CR.32 número 106**
Pilotado por el sargento mayor piloto Giuseppe Alessandri, alias *Alessi*
- **Fiat CR.32 número 198**
Pilotado por el sargento piloto Giulietti Adamo, alias *Ugo Guglielmotti*
- **Fiat CR.32 número 206**
Pilotado por el sargento piloto Fiorenzo Milella, de alias desconocido.

Algunas de estas aeronaves y pilotos habían sido trasladadas al aeródromo riojano el día 29 de marzo desde el campo de aviación de Burgo de Osma.

Tras reunirse sobre el cielo de Logroño, el contingente aéreo en su totalidad se dirigió, volando a una altitud de 1.600 metros, hacia la localidad guipuzcoana de Idiazabal. En el curso de ese trayecto, el teniente Giulio Beccia, a los mandos del *Savoia 81* número 6, advirtió una inquietante vibración en la cola de su aparato y regresó a la base, donde aterrizó a las 08:05 horas. Por obra de este azar se redujeron en 1.080 kilos los explosivos arrojados sobre Durango. El resto de bombarderos y cazas giraron sobre el cielo de Idiazabal y enfilaron hacia los objetivos que les habían sido asignados: Durango, en el caso de la escuadrilla 214 *Savoia 81* de bombardeo pesado y de los cazas Fiat CR.32 de la escuadrilla número 5, que con posterioridad al 7 de mayo de 1937 adoptaría el número 25; y Elorrio, para la escuadrilla 213 *Savoia 81* de bombardeo pesado y

astunak eta 4. eskuadrillako *Fiat CR.32* ehiza-hegazkinak (4. eskuadrilla 24 zenbakiarekin identifikatua izango zen geroago).

08:30ak aldera, Guilio Beccia tenientearen hegazkina misiotik erretiratu ondoren hegan jarraitzen zuten hiru bonbarderoak eta bederatzi ehiza-hegazkinak Durangora heldu ziren eta herria bonbardatzen hasi ziren. Hegazkinak agertu baino minutu batzuk lehenago hasi ziren jotzen Durangoko alarmak, aire-erasoen abisua ematen zutenak. Erasoak etxean eta euren eguneroko zereginetan harrapatu zituen herritar gehienak. Gutxi batzuek aterpea aurkitu zuten herriko zenbait lekutan prestatuta zeuden babesleku apurretan: Ezkurdin, Kanpatorrostetan, Barrenkalean, San Agustinen, etab.

los cazas Fiat CR.32 de la escuadrilla 4, que con posterioridad adoptaría el número 24.

Hacia las 08:30 horas, los tres bombarderos que continuaban volando tras la retirada del aparato del teniente Guilio Beccia se aproximaron a Durango junto con los nueve cazas que los escoltaban, e iniciaron el bombardeo de la villa. Minutos antes habían sonado en la localidad las alarmas que avisaban a sus moradores de la presencia de aviones. A la mayoría de la población el ataque le sorprendió en casa y en sus quehaceres diarios. Fueron una minoría quienes pudieron encontrar cobijo en los pocos refugios que habían sido habilitados por las autoridades en varios lugares del municipio: Ezkurdi, Kanpatorrosteta, Barrenkalea, San Agustín, etc.



214. eskuadrillako Savoia 81 bonbardero bat hegan Durangaldean.

Bombardero Savoia 81 de la escuadrilla 214 sobrevolando el Duranguesado.



Durangoko bonbardaketaren hasiera. Bonben eztandak Kurutzesantutik Andra Maria kalearen hasierarainoko tartean.

Inicio del bombardeo de Durango con las bombas estallando entre Kurutzesantu y el inicio de Andra Maria kalea.

Savoia 81 hegazkinek zuzen jo zuten Kurutziaga kalearen amaieratik herriko alde zaharrerantz. Norabide horretan joanda, goizeko eguzkia hegazkinen atzean geratzen zen eta pilotuek ez zuten arriskurik eguzki-errainuekin itsutuak geratzeko. Uribarriko Andra Maria elizako kanpandorreko dorre jagia erreferentzia-puntu nagusi bat izan zen hegazkinen ibilbidea bideratzeko. Hegazkinak ziri-formazioan zihoazen, eta iritsi zirenean Kurutziaga kalearen amaierara, bonba-jaurtitzaileak botoiari sakatu eta bonbak jausten hasi ziren.

Los *Savoia 81* enfilaron desde el final de la calle Kurutziaga hacia el casco viejo de la villa. De esta manera, el sol matinal quedaba a sus espaldas, impidiendo que pudiera deslumbrar a los pilotos de los bombarderos. La alta torre del campanario de Santa María de Uribarri fue utilizada como elemento referencial de primer orden para encauzar la ruta de los aviones. Dispuestos los aviones en formación de cuña, al llegar a la altura del final de la calle Kurutziaga el apuntador-bombardero pulsó las teclas del disparador y dio inicio al lanzamiento de los proyectiles.

Lehenengo bonbak Kurutziaga kalea eta egungo Altuna musikari kalea elkartzen diren lekuan erori ziren, Vera Cruz ermitaren parean, eta lurrera bota zuten Kurutziagako gurutzea. Bonbardaketa-aginduari jarraituz, lehenengo bonben ostean gainerako bonbak lerro zuzenean bota ziren esan dugun bigurutzetik hasi eta Ezkurdi plazarainoko 350 metroko tartean. Angelo Zoia argazkilari espezialistak bonbardaketa osoaren argazkiak egin zituen hegazkin batetik —seguru asko, azken hegazkinetik—, argazkien bidez aztertzeko gero erasoaren garapena eta bonbek egindako kaltea.

Erasoa Durangoko alde zaharraren kontra egin zen oso-osorik, hau da, herriko gune jendetsuenaren kontra. Goizeko bonbarda-

Las primeras bombas cayeron sobre la intersección de la calle Kurutziaga y la actual Músico Altuna, frente a la ermita de la Vera Cruz, derribando de su fuste la cruz de Kurutziaga. Tras estas primeras bombas, el resto de los proyectiles fueron arrojados, tal y como señalaba la orden de bombardeo, a lo largo de los 350 metros que separan en línea recta la intersección citada y los aledaños de la plaza de Ezkurdi. El bombardeo fue fotografiado en su integridad por el aviador fotógrafo especialista Angelo Zoia desde uno de los aviones atacantes, posiblemente el último, con el objetivo de estudiar más tarde el desarrollo del mismo y los efectos causados sobre el objetivo.

El ataque aéreo se desarrolló íntegramente sobre el casco viejo de Durango, el área



Kurutziaga kalea, Garai jauregiaren aurrean.

Calle Kurutziaga frente al palacio Garai.

ketan txikizio handiena nozitu zuten kaleak —arestian esandako Kurutziaga eta Andra Maria kaleez gain—, Zeharkalea eta Andra Mariaren artean dauden Kalebarria, Goenkalea, Artekalea eta Barrenkalea izan ziren. Albo-kale batzuetan ere jausi ziren bonbak, esaterako Kanpatorrosteta kalean, baina hor kalteak ez ziren izan hain handiak.

Kolpatutako eraikinen artean baziren batzuk nabarmenagoak euren esangura edo berezitasunagatik, eta eurretan hil zen jende kopuru handiarengatik. Eraikin berezi horien artean aipatzekoa da, hasteko, Aita Jesuiten ikastetxeko San Jose eliza. Bonbak jausten hasi zirenean, meza ematen ari zen eliza horretan aita Rafael Billalabeitia Mauroñoigoitia, eta hantxe geratu zen bonbek lehertuta. Berarekin batera hil ziren Luengas anaia eta beste hogeita bost eliztar. Hala zioen behintzat eliza berrinauguratu zenean *La Gaceta del Norte* egunkarian 1943ko martxoaren 28an argitaratu zen eskelak.

Aurreneko bonbak jesuiten elizara jausten ari ziren une berean kasik, beste batzuek Ama Agustindarren Santa Rita komentua jo zuten. Hor, bonbek komentuko eliza ere jo zuten, baina tragedia beste leku batean gertatu zen, handik hurbil. Bonbetatik ihesi, mojak korrika joan ziren babes bila komentuaren atzealdeko ortuan zeukaten estalpera —garai hartan zapadore minatzaille batailoi baten kuartela zena—, pentsaturik komentuan baino seguruago egongo zirela han. Zoritxarrez, bomba batek bete-betean jo zuen estalpea eta zerraldo utzi zituen hamai-ka moja eta kongregazioarentzat lan egiten

más densamente poblada de la localidad. Las calles más afectadas por el bombardeo matutino fueron, además de la mencionada calle Kurutziaga y la calle Andra Maria, las zonas de Kalebarria, Goenkalea, Artekalea y Barrenkalea, situadas entre Zeharkalea y Andra Maria. También sufrieron los efectos del bombardeo otras calles adyacentes a las citadas, como Kanpatorrosteta, pero en estas calles los daños fueron menos importantes.

Entre los edificios afectados se hallaban algunos que destacaban por su significado o singularidad, así como por el elevado número de víctimas registradas en los mismos. El primero de los edificios que merecen ser destacados es la iglesia San José del colegio de los Padres Jesuitas, en la que se hallaba oficiando la misa en el momento del bombardeo el padre Rafael Billalabeitia Mauroñoigoitia, quien pereció bajo las bombas. Junto a él murieron el hermano Luengas y veinticinco feligreses más, según la esquila publicada el 28 de marzo de 1943 en *La Gaceta del Norte* con motivo de la reinauguración de la iglesia.

Casi simultáneamente, fue alcanzado por las bombas el convento de Santa Rita de las Madres Agustinas. En este lugar las bombas impactaron también sobre la iglesia conventual, pero la tragedia se cebó en otro lugar adyacente. Huyendo de las bombas, las monjas habían corrido a refugiarse en un cobertizo que tenían en la huerta situada en la parte trasera del convento, creyendo que ahí estarían más seguras que en el convento, donde se acuartelaba un batallón de zapadores minadores. Trágicamente, una de las bombas impactó en



Durangoko bonbardaketa bonbardero italiarretatik ikusita.
Bombardeo de Durango visto desde los bombarderos italianos.

zuen neska gazte bat. Iban Gorritik argitaratutako Paula Azkarateren testigantzen arabera, hildako mojak gehiago izan ziren, 17 hain zuzen. Paula Azkaratek dio moja agustindar gehiago ere hil zirela arratsaldeko bonbardaketan eta metrailamenduetan.

Bonbek Durangoko beste eraikin garrantzitsu bat ere jo zuten inpaktu zuzenekin: Uribarriko Andra Mariko eliza eta bere elizpe monumentalak. Bonbak jausten hasi ziren unean, Carlos Morilla Carreño abadea meza ematen ari zen, laguntzaile zuela Rafael Cuevas monagiloa. Carlos Morilla abadea Guillermo Morillaren anaia zen —Durangoko notarioa eta Izquierda Republicanako militante nabarmena—, eta Durangora etorria zen Asturiasko bere sorterritik, pentsaturik bera bezalako abade bat seguruago egongo zela Bizkaian Asturiasen baino. Nola Andra Mariko elizpean baserriaren asteroko azoka egiten ari zen, merkatu plaza euskal gudarostean hartua zeukalako bere automobilen parkerako, elizpea baserriarekin beteta zegoen eta gainezka eguneko erosketak egiten ari ziren herritarrez.

Bi leku seinatu horietan izan ziren biktime ugari gehitu behar zaizkie herriko etxe, denda eta kaleetan bonbek hil eta zauritu zituzten ehunka herritarrak. Claudio Alegria Mendialdua mediku gernikarra biktimei laguntzen ibili zen, eta eman zuten testigantzen arabera bonbardaketak zazpi minutu inguru iraun zuten, hau da, hiru bonbarderoek zorigaitzoko 350 metroak egiteko behar izan zuten denbora. Epe horretan, hegazkinek 50 kiloko 60 bomba bota

el cobertizo, ocasionando la muerte de once monjas y una joven que trabajaba al servicio de la congregación. El testimonio de Paula Azkarate, editado por Iban Gorriti, eleva a 17 el número de monjas fallecidas. Paula Azkarate añade, además, que también fallecieron monjas agustinas en el bombardeo y ametrallamientos de la tarde.

El otro gran edificio que sufrió el impacto directo de las bombas fue la iglesia de Santa María de Uribarri y su monumental pórtico. En el momento del bombardeo, el sacerdote Carlos Morilla Carreño estaba celebrando misa en el interior de la iglesia auxiliado por el monaguillo Rafael Cuevas. Carlos Morilla, hermano de Guillermo Morilla, notario de Durango y destacado militante de Izquierda Republicana, se encontraba en Durango en la creencia de que las tierras vizcaínas eran más seguras para su condición de religioso que su natal Asturias. Adjunto a la iglesia se erigía el pórtico de Santa María, lugar donde, debido a que la plaza del Mercado se hallaba ocupada por el parque de automovilismo del Ejército Vasco, se estaba desarrollando el mercado agrícola semanal, razón por la que el recinto se encontraba atestado de aldeanos, así como de vecinos que se habían acercado a adquirir los productos que allí se ofertaban.

A las numerosas víctimas habidas en estos lugares tan significativos se han de sumar los centenares de fallecidos y heridos que el bombardeo produjo en casas, comercios y calles de la localidad. Un bombardeo que, según el testimonio ofrecido por Claudio Alegria Mendialdua, médico de Gernika que acudió a socorrer a las víctimas, duró en torno a siete minutos, el

zituzten eta 20 kiloko 12 su-bonba. Erasotik ihesi zihoazen herritar izutuen testigantzen arabera, bombarderoak bonba jaurtika ari ziren bitartean CR.32 ehiza-hegazkinak herritarrak metrailatzen ibili ziren behe-behetik. Hain behetik, funtsean, non abiadoreek arazorik gabe ikusten baitzuten zibilak sarraskitzen ari zirela eta ez militarrek.

Eztabaida luzea egon da argitu beharrez Durangoko bonbardaketan su-bonbak erabili ziren ala ez. Batzuek baietz uste bazuten ere, beste batzuek argudiatzen zuten Durangoko alde zaharra kiskaldu zuten suteak ez zirela zertan izan su-bonben lana, nahikoa zelako bonbek jotako erai-kin batzuetan gordetzen ziren materialak piztea bazterrek garretan jartzeko. Horrelakoxe materialak ei zeuden, adibidez, Andra Maria kalean, Goenkalean sarreran zegoen Larrea drogerian. Gaur egun, Erromako *Ufficio Storico dell'Aeronautica Militare* artxiboan gordetzen den dokumentazioa irakurrita badakigu Durangon jaurtitako lehergailuen artean bazirela 20 kiloko 12 su-bonba. Halere, inongo erregistrotan ez dago jasota su-bonba horiek hegazkinetan kargatu eta Durangon jaurti zirenik, eta horien aipamen bihirik ez da ageri ez hegaldi-aginduan, ez egun hartako aire-jardueraren laburpenean. Omisio horren arrazoia zein den ez dakigu. Su-bonben erabilera sekretu militar bat ote zen? Bitxia bada ere, *L'Homme libre* egunkari frantsesak apirilaren 2an Durangoko bonbardaketaren berri eman zuenean, su-bonbak jaurti zirela publikatu zuen.

tiempo que tardaron los tres bombarderos en recorrer los fatídicos 350 metros. En ese lapso de tiempo los aviones arrojaron 60 bombas de 50 kilos cada una, así como 12 bombas incendiarias de 20 kilos. Tiempo que, a su vez, emplearon los cazas CR.32 de escolta en ametrallar a la población desde muy baja altura, según testimonios de los aterrorizados vecinos que huían del ataque. Baja altura desde la que los aviadores podían distinguir con toda claridad que sus objetivos eran civiles, no combatientes.

En muchas ocasiones se ha especulado si sobre Durango se arrojaron o no bombas incendiarias. A las teorías que defendían que sí se emplearon tales artilugios se opuso el razonamiento que afirmaba que los incendios que se desataron pudieran haberse iniciado por la combustión de materiales que albergaban los edificios calcinados, como por ejemplo la droguería Larrea, sita en la calle Santa María, a la entrada de Goenkalea. Hoy día, a la luz de la documentación que se conserva en el *Ufficio Storico dell'Aeronautica Militare* en Roma, se puede afirmar que entre los artefactos explosivos arrojados sobre Durango se hallaban 12 bombas incendiarias de 20 kilos. Sin embargo, estas bombas incendiarias no figuran consignadas ni como embarcadas ni como arrojadas sobre Durango, ni en la orden de vuelo ni en el resumen de actividad aérea de aquel día. Se ignora la razón que llevó a esta omisión. ¿Acaso su utilización constituía un asunto reservado? Curiosamente, el periódico francés *L'Homme libre*, al informar del bombardeo de Durango en su edición del 2 de abril, señaló que se habían lanzado bombas incendiarias.



Andra Maria plaza eta Andra Maria kalea Andra Mariko kanpandorretik.

Plaza y Andra Mari kalea desde la torre de Santa María.



Kalebarria, Komentukalea eta Andra Maria kalea Andra Mariko kanpandorretik

Kalebarria, Konbentukalea y Andra Maria kalea desde la torre de Santa María.

Martxoaren 31n, 09:05ean, “La Cucaracha” goitizena zeukan 5. taldeko 5. eskuadrillaren bederatzi CR.32 ehiza-hegazkinak lur hartu zuten Angocilloko aerodromoan (Logroño). Gero, 09:20an, Sorian lurreratu ziren operazioan parte hartutako gainerako hegazkinak, hau da, 214. eskuadrillako hiru Savoia 81 hegazkinak. Misioak 70 minutu iraun zuen ehiza-hegazkinen pilotuentzat, eta 120 minutu bonbarderoentzat. Ameriketako Estatu Batuek Espainian zuten enbaxadoreak, Claude G. Bowers-ek, bere memorietan idatzi zuen eraso hura izan zela “1937ko martxoaren 31ra arte populazio zuriaren aurka historian egindako bonbardaketa izugarriena”.

1937ko martxoaren 31n bertan, 14:30ak aldera, Soriako aerodromotik berriro aireratu ziren 214. eskuadrillako Savoia 81ak Durango bigarren aldiz bonbardatzeko. Aldi honetan, 214. eskuadrillako 1, 2 eta 5 zenbakiko hiru Savoia 81 hegazkinei egokitu zitzaizen bigarren misio hau egitea. Bizpahiru aldaketa kenduta, goizeko misioa egin zuten abiadore berberak abiatu ziren oraingoan ere Durangorantz. Hona hemen euren izenak:

5 zenbakiko Savoia 81

- **Ferdinando Raffaelli**, teniente koronel pilotua
- **P. Cesare Villa**, teniente pilotua
- **Mario Bonomi**, sarjentu pilotu nagusia
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Paolo Rapetti, motorista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Marcello Berlanda, irrati-telegrafista

A las 09:05 horas del 31 de marzo los nueve cazas CR.32 de la escuadrilla número 5 del grupo 5, denominado *La cucaracha*, tomaron tierra en el aeródromo de Angocillo (Logroño). A las 09:20 horas aterrizaron en Soria el resto de los aviones que participaron en la operación, los tres Savoia 81 de la escuadrilla 214. La misión había durado para los pilotos de los cazas setenta minutos y para los bombarderos ciento veinte. Misión calificada en sus memorias por el embajador de Estados Unidos de América en España, Claude G. Bowers, como “*el bombardeo más terrible contra una población blanca que se conoce en la historia hasta el 31 de marzo de 1937*”.

El mismo día 31 de marzo de 1937, hacia las 14:30 horas, desde el aeródromo de Soria despegaron nuevamente los Savoia 81 de la escuadrilla 214 con orden de bombardear por segunda vez Durango. En esta ocasión, los tres bombarderos de la escuadrilla 214 a los que se asignó esta segunda misión fueron los Savoia 81 números 1, 2 y 5. Estos aviones fueron tripulados, salvo cambios puntuales, casi en su totalidad por los mismos aviadores que habían llevado a cabo la misión matinal, a saber:

Savoia 81 número 5

- Teniente coronel Piloto **Ferdinando Raffaelli**
- Teniente piloto **P. Cesare Villa**
- Sargento mayor piloto **Mario Bonomi**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
motorista **Paolo Rapetti**
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
radiotelegrafista **Marcello Berlanda**

- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Dino Marconi, armamentu arduraduna
- Mario Tomeii sarjentu, muntatzailea

1 zenbakiko Savoia 81

- Gildo Simini, kapitain pilotua.
- Giulio Beccia, teniente pilotua.
- Giulio Palombi, M. II pilotua.
- Camilo Ciampoli, sarjentu nagusia, motorista.
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Mario Pianella, motorista.
- Arturo Cuturi sarjentu nagusia, irradi-telegrafista
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Armando Ruggero, armamentu arduraduna
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Angelo Zoia, argazkilaria

2 zenbakiko Savoia 81

- Ezio Ceretta, teniente pilotua.
- Mario Magni, sarjentu pilotu nagusia.
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Sileno Passeri, motorista.
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Mario Biagioni, irradi-telegrafista.
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Ezio Mariatti, armamentu arduraduna
- *Aviere Scelto* [abiadore espezialista]
Stefano Turi, muntatzailea

Hiru bonbardero horiei 213. eskadrillako beste hiru bonbardero gehitu zitzaizkien. Haei buruz pilotuen izenak baino ez dakizkigu, eskadrillaren *Diario storico*an jasota daudelako: Ugo Macchieraldo kapitain pi-

- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
armamento Dino Marconi
- Sargento montador Mario Tomeii

Savoia 81 número 1

- Capitán piloto Gildo Simini
- Teniente piloto Giulio Beccia
- M. II. piloto Giulio Palombi
- Sargento mayor motorista Camilo Ciampoli
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
motorista Mario Pianella
- Sargento mayor radiotelegrafista
Arturo Cuturi
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
armamento Armando Ruggero
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
fotógrafo Angelo Zoia

Savoia 81 número 2

- Teniente piloto Ezio Ceretta
- Sargento mayor piloto Mario Magni
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
motorista Sileno Passeri
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
radiotelegrafista Mario Biagioni
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
armamento Ezio Mariatti
- *Aviere scelto* [aviador espezialista]
montador Stefano Turi

A estos tres bombarderos se les unieron tres bombarderos más pertenecientes a la escuadrilla 213, de los que únicamente conocemos, en base a lo reseñado en el “Diario Histórico” de la misma, que fueron comandados, uno por el capitán piloto Ugo Macchieraldo, y los otros dos por el teniente piloto Domenico Val-

lotua, Domenico Valsania teniente pilotua eta Stefano Castellani teniente pilotua. Nola galduta dagoen 213. eskuadrillak 1937ko urria baino lehen egin zituen hegaldien erregistro-liburua, ez daukagu jakiterik hegazkin horietako gainerako abiadoreen izenak, ez eta beste xehetasun tekniko batzuk ere.

Goizean gertatu bezala, 16:05ean elkarrekin batu ziren Logroño gaineko zeruan Soriatik ateratako bonbarderoak eta eskoltako zazpi CR.32 ehiza-hegazkinak, hauek ere “La Cucaracha” taldeko 5. eskuadrillakoak. Arratsaldeko eraso horretan hegazkin eta abiadore hauek hartu zuten parte:

- **117 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Armando Francois** –goitizenez *Arturo Malori*– kapitain pilotua.
- **206 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Pasencei** goitzeneko teniente pilotuorde bat. Bere benetako izena ez dakigu.
- **510 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Adriano Boldetti** teniente pilotuordea. Ez dakigu bere goitizena.
- **151 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Franco De Micheli** teniente pilotuordea, goitizenez *Costanzi*.
- **131 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Pietro Garfagnoli** tenienteordea, goitizenez *Garfini*.
- **69 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Delfino Fratini** sarjentu nagusi pilotua, goitizenez *Constantino D’Angelo*.
- **392 zenbakiko Fiat CR.32 hegazkina:**
Pilotua: **Annibale Ricotti** sarjentu nagusia, goitizenez *Ricci*.

sania yel teniente piloto Stefano Castellani. La pérdida del libro que recogía el registro de los vuelos de la escuadrilla 213 antes de octubre de 1937 hace imposible conocer la identidad del resto de los tripulantes de estas aeronaves, así como otros detalles técnicos.

A semejanza con lo acontecido por la mañana, a las 16:05 horas, a los bombarderos procedentes de Soria se unieron a la altura de Logroño siete cazas CR.32 pertenecientes también a la escuadrilla número 5 del grupo “La cucaracha”, para realizar funciones de escolta. Participaron en la acción de la tarde los siguientes aparatos y tripulantes:

- **Fiat CR.32 número 117:**
Pilotado por el capitán piloto **Armando Francois**, alias *Arturo Martori*
- **Fiat CR.32 número 206:**
Pilotado por un subteniente piloto, alias Pasencei, de identidad desconocida
- **Fiat CR.32 número 510:**
Pilotado por el subteniente piloto **Adriano Boldetti**, cuyo alias se desconoce
- **Fiat CR.32 número 151:**
Pilotado por el subteniente piloto **Franco De Micheli**, alias *Costanzi*
- **Fiat CR.32 número 131:**
Pilotado por un subteniente **Pietro Garfagnoli**, alias *Garfini*
- **Fiat CR.32 número 69:**
Pilotado por el sargento mayor piloto **Delfino Fratini**, alias *Constantino D’Angelo*
- **Fiat CR.32 número 392:**
Pilotado por el sargento mayor piloto **Annibale Ricotti**, alias *Ricci*

Hegazkinak 16:39ak aldera iritsi ziren Durango, eta une horretatik aurrera bonbarde-roak bi multzotan banatu ziren.

213. eskuadrillako bost bonbarderoek Durangoko alde zaharrean jaurti zituzten zeramatzaten bonbak. Oraingoan, erreferentzia-puntutzat Zeharkalea hartu zuten, alde zaharra sortaldetik mendebaldera diagonalean ebakitzen duen kalea. Goizeko bonbardaketan bonbek ez zuten Zeharkalea ukitu, bera zen hilerrira joateko libre zegoen kale bakarra, eta nola goizeko bonbardaketako hildakoak hilerrira eramanda zeuden, une horretan Zeharkalean jendea gainezka zebilen hilerrira joan-etorrian. Funtsean, arratsalde hartan Durangoko leku jendetsuenetako bat zen Zeharkalea.

Los aviones llegaron a su objetivo hacia las 16:39 horas, momento a partir del cual los bombarderos actuaron sobre dos áreas diferentes.

Los cinco bombarderos pertenecientes a la escuadrilla 213 lanzaron sus explosivos sobre el casco antiguo de Durango, tomando en esta ocasión como referencia el trazado de Zeharkalea, vía urbana que atraviesa diagonalmente, de este a oeste, el núcleo poblacional. Zeharkalea era una de las vías que habían quedado indemnes en el bombardeo matinal y por la que habían de transitar los vecinos que se dirigían al cementerio de la localidad, lugar a donde habían sido trasladados los cuerpos de las víctimas del bombardeo matinal. Esta circunstancia hizo que



Eusko Trenbideko lantegien eta bagoiz betetako trenbide-hondartzaren bonbardaketa 1937ko martxoaren 31ko arratsaldean.

Bombardeo de los talleres de los Ferrocarriles Vascongados y la playa de vías llenas de vagones la tarde del 31 de marzo de 1937.

Bigarren olatu honetan bonbek San Agustín kaleko Ospitale Santua eta Misericordia Etxean kokatutako ospitale kirurgikoa jo zuten, ospitale bietako fatxadan eta teilatuan Gurutze Gorriaren bandera handiak jarrita egon arren. Gerra denboran beste ospitale bat ere egon zen zabalik Durangon, Ospitale Mediko Militarra. Etxezarreta jauregian zegoen, San Agustín kalean bertan, gaur egun Durangoko Arte eta Historia Museoa dagoen lekuan.

Arratsaldeko bonbardaketan 5.200 bat kilo lehergai jausi ziren Durangon. Bomba gehienek Zeharkale inguruko etxeak jo zituzten, eta baita ere Zeharkale eta Santa Ana plazaren arteko Artekale eta Goenkaleko etxeak.

Goizeko bonbardaketaren ostean durangarrek ihesari eman zioten herriko kaleartetik kanpora, eraso gehiagoren beldur. Hori dela eta, bigarren erasoaldian biktima gehienak bonbarderoen eskoltako ehiza-hegazkinek hil zituzten metrailatuta. Lekukoek diote San Roke, Landako, Montorreta eta El Pasiegoko landetan, eta batez ere alde zaharra eta hilerria elkarrekin lotzen dituen bidean, jende gehiago hil zela ehiza-hegazkinek metrailatuta arratsaldean jaurti ziren bonbek lehertuta baino.

16:30ean, Durango bonbardatzetik zetozen hiru Savoia 81etatik bi Soriako aerodromoan lurreratu ziren. Hirugarrena, Ferdinando Raffaellik gidatutako 5 zenbakiko bonbarderoa, Soriako bere basera zuzenean itzuli beharrean Gasteizen lurreratu zen 15:55ean, Gas-

Zeharkalea fuera aquella tarde una de las áreas de Durango más concurridas.

Entre los edificios bombardeados en esta segunda oleada se hallaba el hospital quirúrgico instalado en el antiguo Santo Hospital y Casa de Misericordia de la calle San Agustín. Este hecho se produjo a pesar de las grandes banderas de la Cruz Roja que tenía colocadas en fachada y tejado advirtiendo de su carácter sanitario. El otro hospital habilitado en Durango durante la guerra fue el Hospital Médico Militar, instalado en el palacio Etxezarreta, sito en la misma calle San Agustín y actualmente sede del Museo de Arte e Historia de Durango.

En el bombardeo de la tarde fueron arrojados sobre el casco viejo de Durango en torno a 5.200 kilos de explosivos, principalmente contra las casas situadas en torno a la mencionada Zeharkalea, así como sobre las casas de las calles Artekalea y Goenkalea, localizadas entre Zeharkalea y la plaza de Santa Ana.


Tras el bombardeo matutino, los habitantes de Durango habían huido en gran número del casco urbano para evitar nuevos ataques. Esto hizo que la mayoría de las víctimas de la segunda oleada fueran causadas por los ametrallamientos realizados desde los cazas que escoltaban a los bombarderos. Los testimonios señalan que los ametrallamientos de los cazas en las campas de San Roque, Landako, Montorreta, El Pasiego y, sobre todo, en el camino que une el casco viejo con el cementerio, provocaron posiblemente en este

teizen baitzegoen *Aviazione Legionariaren* eta Kondor Legioaren Estatu Nagusia, eta baita ere tropa nazionalek 1937ko martxoaren 31n abiatu zuten ofentsiba orokorraren buru Mola jeneralaren Estatu Nagusia. Gasteizen minutu batzuk egon ondoren, Ferdinando Raffaelli berriro aireratu zen Soriarantz, lagun harturik beste pilotu bat, *maggiore piloti* Galassi delako bat, eta 16:45ean heldu zen Soriako aerodromora. Bestalde, operazioan parte hartu zuten ehiza-hegazkinek 17:10ean hartu zuten lur Agoncilloko basean (Logroño).

214. eskuadrillako hiru *Savoia 81* bonbardeorok hartu zuten agindua izan zen Durango-ko geltokia bonbardatzea, batez ere tailerrak eta geltokiko trenbide-material gurpilduna

bombardeo vespertino más mortandad que los bombardeos propiamente dichos.

A las 16:30 horas, dos de los tres Savoia 81 que participaron en el bombardeo de Durango aterrizaron en el aeródromo de Soria, mientras que el tercero, el bombardero número 5 comandado por Ferdinando Raffaelli, tomó tierra a las 15:55 horas en Vitoria, donde se ubicaba el Estado Mayor de la *Aviazione Legionaria*, de la Legión Cónдор, así como la del general Mola, al mando de la denominada Ofensiva General iniciada por las tropas nacionales aquel mismo día 31 de marzo de 1937. Al cabo de unos minutos, Ferdinando Raffaelli reemprendió el vuelo hacia Soria acompañado de otro tripulante, el *maggiore piloti* [comandante piloto] Galassi, y aterrizó en la ciudad castellana a las



1937ko martxoaren 31n suntsitutako trenbide bagoiak eta instalazioak.

Vagones e instalaciones ferroviarias destruidas el 31 de marzo de 1937.

aparkatzeko zabaldian zeuden bagoiak. Bombarderoek 50 kiloko 40 bomba bota zituzten, bete-betean jo zituzten izendatutako helburuak eta kalte handia egin zuten tren-instalazioetan eta trenetan euretan.

Apirilaren 1ean, aro txarrak ez zuen eman aukerarik Durango berriro bombardatzeko, baina 2an eguraldiak hobera egin zuen. Egun horretan, *Aviazione Legionaria*ren hegazkinak, Gasteiztik etorrira nonbait, bomba jaurtita ibili ziren 14:30etik 18:00etara. Bigarren bombardaketa honek lekuko berezi batzuk izan zituen, bombardaketa zuzenean ikusi ahal izan zutenak: Euskadi autonomia bisitatzera etorritako Ingalaterrako ordezkari bat, buru zuena Hewet Johnson Canterburyko katedraleko deana. Apirilaren 2ko eraso ez zen izan Durangoren aurkako azken aire-erasoa, frankistek berriro bombardatuko baitzuten herria apirilaren 4an.

Apirilaren 2ko eta 4ko bombardaketetan biktima gutxi egon ziren, gehienak suhiltzaileak eta laguntza eta erreskate lanetan ari ziren pertsonak, eta horren arrazoia da ordurako durangar gehienak herritik alde eginda zuedela Durangoko kanpoaldeko baserrietara, albo-herrietara (Iurreta, Garai, e.a.) zein Bilbora.

16:45 horas. Por su parte, los cazas que participaron en la operación aterrizaron en su base de Agoncillo (Logroño) a las 17:10 horas.

Por lo que respecta a los tres bombarderos Savoia 81 de la escuadrilla 214, su objetivo había sido la estación, principalmente los talleres y los vagones situados en la playa de estacionamiento del material ferroviario rodante de la estación de Durango. En este bombardeo se arrojaron 40 bombas de 50 kilos que dieron plenamente en los objetivos marcados, causando fuertes destrozos en las instalaciones ferroviarias, así como en el material rodado.

El 1 de abril las condiciones meteorológicas hicieron imposible un nuevo bombardeo aéreo sobre Durango, pero no así el 2. En esta ocasión, la incursión de la *Aviazione Legionaria*, proveniente posiblemente de Vitoria, se desarrolló desde las 14:30 horas hasta las 18:00 horas. Este nuevo bombardeo fue presenciado por una delegación inglesa que, encabezada por Hewet Johnson, deán de la catedral de Canterbury, se hallaba de visita en la Euskadi autónoma. No fue este del 2 de abril el último ataque aéreo contra la villa de Durango, pues un nuevo bombardeo franquista se produjo el día 4 del mismo mes.

Los bombardeos de los días 2 y 4 de abril causaron un número mínimo de víctimas, siendo éstas principalmente bomberos y personal que se hallaba en Durango desarrollando actividades de ayuda y rescate. La población había huido a caseríos del extrarradio urbano, hacia Bilbao o a otros pueblos circundantes como Iurreta, Garai, etc.

BONBARDAKETAREN HELBURUA

FINALIDAD DEL BOMBARDEO

Durangoko bonbardaketen ostean espekulazio asko egin dira argitzeko zer asmoz egin ote ziren. Alde batera utzirik Gonzalo Queipo de Llanok Radio Sevillatik botatzen zituen harengak, esanez bonbardaketarik ez zela egon eta apaizen eta eliztarren heriotzak “separatisten” lana izan zirela, askotan esanda Durango helburu militar bat zela eta, ondorioz, justifikatuta zegoela herriak 1937ko martxoaren 31tik apirilaren 4ra bitartean jasan zituen aire-erasoak.

Durango helburu militar bat bezala agertu nahi izan zutenen artean aurrenetako bat Alfonso Merry del Val eta Zulueta izan zen, Londresen Francoren ordezkari ofizioso bezala aritu zena gobernu britainiarraren aurrean, Jacobo Fitz-James Stuart eta Falcó

En los años transcurridos desde que se produjeran los bombardeos sufridos por Durango mucho se ha especulado en torno a la finalidad de los mismos. Dejando a un lado las arengas de Gonzalo Queipo de Llano desde Radio Sevilla negando los bombardeos mismos y atribuyendo las muertes de sacerdotes y feligreses a los “rojo-separatistas”, en numerosas ocasiones se ha tratado de caracterizar Durango como objetivo militar con el fin de justificar los ataques aéreos sufridos por la villa entre el 31 de marzo y el 4 de abril de 1937.

Una de las primeras voces que se alzaron en este sentido fue la de Alfonso Merry del Val y Zulueta, que actuaba en Londres como representante oficioso de Franco frente al gobierno británico junto con Jacobo Fitz-James

Albako dukearekin batera. Komunikabideei egindako adierazpen batzuetan, Merry del Valek esan zuen oso ondo ezagutzen zuela Durango, familia-lokarriak zituelako bertan. Izan ere, Merry del Valen emaztea Maria de Alzola eta Gonzalez de Castejon zen, Pablo de Alzola y Miñondo aristokrata bilbotarra-ren alaba. Bestalde, Alfonso Merry del Valen semea, hau ere Alfonso deitua, Carmen Gurtubay Alzola Iurretako markesarekin ezkondata egon zen 1932ra arte. Gurtubay familiarenak ziren Iurretako markeseria, Andriako dukerria eta Durangoko San Agustín auzoan dagoen Castejongo jauregia. Durango ezagutzeak ematen zion pisuarekin, Alfonso Merry del Valek zabaldu zuen

Stuart y Falcó, duque de Alba. En manifestaciones a los medios de comunicación, Merry del Val afirmó conocer muy bien Durango por sus vinculaciones familiares con la villa. Efectivamente, Merry del Val estaba casado con María de Alzola y Gonzalez de Castejón, la hija del aristócrata bilbaíno Pablo de Alzola y Miñondo. Por su parte, el hijo del representante franquista en Londres, llamado también Alfonso, hasta 1932 había estado casado con Carmen Gurtubay Alzola, marquesa de Iurreta. La familia Gurtubay, además del marquesado de Iurreta, ostentaba también el ducado de Andria y era propietaria del palacio de Castejón, situado en el arrabal de San Agustín de la villa duranguesa. Con el



Durangoko aireko ikuspegia, 1937ko martxoaren 31ko arratsaldeko bonbardaketaren ostean.

Vista aérea de Durango tras el bombardeo de tarde del 31 de marzo de 1937.

Durango lehen mailako helburu militarra zela bertan zeuden kuartel, lantegi eta beste instalazio batzuegatik, eta justifikatuta zegoela herria bonbardatzea.

Baina egia al da Durangok interes militarra zeukala?

1937ko martxoan, Mola jeneralaren Estatu Nagusia Bizkaia konkistatzeko plan estrategikoak prestatzen ari zen garaian, Durangon baziren interes militarreko hainbat gune, eta buruzagi frankistek bazuten euren berri. 1937ko otsailaren 27an, Alejandro Goicoechea Omar kapitain elorriarrak, Bizkaia gotortzeko lanen arduradunak, frankisten lerroetara desertatu zuen eta matxinoen esku jarri zuen Euskadi autonomoaren defentsei buruzko informazio zehatza. *Bilboko plazako eremu gotortua. Plaza horretatik ihes egindako Goicoechea kapitain ingeniariak prestatu txosteneko informazio zehatza* izeneko informean bazen *Interes militarreko kokaleku gorriak* izeneko dokumentu bat, 1937ko martxoaren 12koa, zeinetan zerrendatzen ziren interes militarreko hainbat toki Durangon. Hauek hain zuzen:

15. 5. orria Sortaldea. Durangoko kuartela (lonja izandakoa)

16. 5. orria Sortaldea. Durangoko kuartela (Jesuiten egoitza)

27. 8. orria Sortaldea. Durangoko kuartela (San Frantzisko komentua)

33. 5. orria Sortaldea. Durangoko Artilleriako kuartela (Mendizabal etxea)

aval que le confería este conocimiento de la localidad, Alfonso Merry del Val afirmó que Durango era un objetivo militar de primer orden debido a los cuarteles, fábricas y otras instalaciones que alojaba, y defendió la legitimidad del bombardeo.

Pero, ¿era Durango un objetivo de interés militar?

En el mes de marzo de 1937, en el tiempo en el que el Estado Mayor del general Mola redactaba los planes estratégicos referentes a la conquista de Bizkaia, Durango albergaba diferentes centros y lugares de interés militar de los cuales el mando nacional tenía pleno conocimiento. La desertión el 27 de febrero del capitán Alejandro Goicoechea Omar, natural de Elorrio y encargado de los trabajos de fortificación de Bizkaia, permitió a los jefes nacionales tener un conocimiento detallado de las defensas de la Euskadi autónoma. En el documento denominado “Emplazamientos rojos de interés militar” perteneciente al informe “Campo atrincherado de la plaza de Bilbao. Información detallada según informe facilitado por el capitán Goicoechea de Ingenieros, evadido de dicha plaza”, fechado el 12 de marzo de 1937, se indicaban con referencia a la villa de Durango los siguientes lugares de interés:

15. Hoja 5 Este. Cuartel en Durango (antigua lonja)

16. Hoja 5 Este. Cuartel en Durango (residencia de los jesuitas)

Frankistek oso informazio zehatza zeukaten Durangoko helburu militar errepublikanoei buruz, eta hori horrela dela frogatzen dute, besteak beste, Galiziako Erresumako Artxi-boan gordetako Francisco Iglesias Brage Iparraldeko Fronteko operazio-buruaren dokumentuek, xehetasun guztiarekin agertzen dutenek Durangoko helburu militarrik, arkatzez egindako eskemetan.

Esan ditugun interes militarreko lekuez gain, Eusko Gudarosteak Merkatu plazan jarria zeukan bere automobil-parkea, eta Santa Susana ikastegian zapadore minatzaileen batailoi batek bere kuartela.

Uribarriko Andra Mariko eliza intendentziako biltegi bihurtuta zegoen. 1937ko Aste Santua hurbil zegoenez, EAJko Udal Batzordeko lehendakari Gloria Zubia Erdoiza andreak eskatu zion Juan Ajuriagerrari eraman zezatela biltegia beste norabait eta hustu zedila parrokia elizako zereginetarako. Ajuriagerrak erantzun zion Andra Mari hustu ahal izateko beste toki bat beharko luketela nora eraman elizan gordetako materiala, eta Zubiak esan zion bazegoela Azoka kalean, Andra Maritik ez oso urrun, lantegi bat —Calzados Berrio—, jabeak Durangotik kanpora joanak zituena gerratik ihesi, eta huraxe izan zitekeela behar zuten lekua. Gloria Zubiaren testigantza arabera, Andra Mariko eliza martxoaren 24an, Asteazken Santuan, jarri zen berriro prest eliz zereginetarako. Durangon baziren, baita ere, interes militarreko hainbat industria, hala nola Ferretera Vizcaína, Mikeldi, Ortiz de Zarate eta Hijos

27. Hoja 8 Este. Cuartel en Durango (convento de San Francisco)

33. Hoja 5 Este. Cuartel de Artillería en Durango (casa Mendizabal)

El conocimiento que los sublevados poseían de los objetivos militares republicanos ubicados en Durango era muy amplio, como acreditan, entre otros, los documentos conservados en el Fondo de Francisco Iglesias Brage, jefe de operaciones del Frente del Norte, del Archivo del Reino de Galicia. En este fondo se conservan documentos que llegan al detalle de esquemas manuscritos a lápiz que sitúan los objetivos ubicados en Durango.

Además de los emplazamientos militares señalados, cabe apuntar que la plaza del Mercado estaba habilitada por el ejército vasco para funciones de parque automovilístico, y que el colegio de Santa Susana albergaba el cuartel de un batallón de zapadores minadores.

La iglesia parroquial de Santa María de Uribarri había sido reconvertida en almacén de intendencia. Dada la proximidad de la Semana Santa de 1937, la presidenta de la Junta Municipal del PNV, Gloria Zubia Erdoiza, apeló a Juan Ajuriagerra para que trasladase dicho almacén y posibilitara el uso religioso de la iglesia. En su respuesta a Zubia, Ajuriagerra indicó que para desocupar Santa María necesita un lugar a donde trasladar lo almacenado en el templo. Zubia apuntó para ese fin la fábrica de Calzados Berrio, sita en la cercana calle Azoka y cuyos propietarios se habían ausentado de Durango por motivo de la gue-



Montoiko zubi ingurua. Martxoaren 31ko arratsaldean trenbide-instalazioak bonbardatu zituzten hegazkin italiarretatik egindako argazkia.

Cercanías del puente del Montón fotografiado desde los aviones italianos la tarde del 31 de marzo durante el bombardeo matutino.

- 1 Mendizabalen txaleta, artilleria-kuartel bihurtua
- 2 Hijos de Mendizabal lantegia, interes militarreko industria
- 3 Montoiko zubia Ibaizabal ibaiaren gainean
- 4 Fundación San Miguel (Echebarria y Cía)

- Chalet de Mendizabal, cuartel de artillería
- Hijos de Mendizabal, industria de interés militar
- Puente de Montón sobre el río Ibaizabal
- Fundación San Miguel (Echebarria y Cía)

de Mendizabal lantegiak. Horietako gehienetan abiazio-bonbak egiten ziren, bonben osagaiak eta fusileriako kartutxoak.

Durangoren kokapen geografikoa dela medio, herriko hainbat lekuk balio militar estrategikoa zuten. Halakoa zen, adibidez, Durango eta Abadiñoeko Matiena auzoa elkarrekin lotzen zituen zubia, berebiziko garrantzia zeukana Durango eta Gipuzkoako Frontearen arteko komunikazioetarako. Gauza bera gertatzen zen Durango eta Iurreta arteko Montoiko zubiarekin, izugarri baliozua Otxandioko eta Arabako Frontea Bilborekin eta atzeguardia osoarekin lotzen zuen errepide sarearen barruan. Montoiko zubi horrek, bestalde, ondoan zituen Durangoko lantegi militar garrantzitsuenetako bat —Mendizabal— eta Mendizabal txaleta, artilleriako kuartel bihurtuta zegoena. Errebeldeek bazuten leku horien guztien berri.

1923an, Ferrocarriles Vascongados enpresak Lebarioko saihebidia egin zuen eta zerbitzuz kanpo utzi zuen Durangotik Matienara Iurretatik zihoan trenbidea. Bizkaiko Foru Aldundiak trenbide-zati hori erosi zuen, bertan 634 errepide nazionala egiteko, garai hartan errepide hori Durangoko alde zahararen erditik igarotzen baitzen. Halere, proiektua bertan behera geratu zen 1936an, gerra zibila hasi zenean. Asko espekulatu da bombardaketaren helburuetako bat ez ote zen izan Andra Maria kaleko etxeak erraustea Durango erditik zihoan errepide nazional hori mozteko, oinarrizko komunikazio-bidea zelako Gipuzkoako frontera hel-

rra. Según el testimonio de Gloria Zubia, la iglesia quedó nuevamente habilitada para su uso religioso el 24 de marzo, Miércoles Santo. Durango albergaba también diversas industrias de interés militar, como la Ferreteria Vizcaína, Mikeldi, Ortiz de Zarate e Hijos de Mendizabal, destinadas la mayoría de ellas a la fabricación de bombas de aviación o elementos complementarios para las mismas, así como a cartuchería para fusil.

La ubicación geográfica de Durango hacía que diversos puntos de la villa adquirieran un valor militar estratégico. Así ocurría con el puente de Arzubia, sito entre Durango y Matiena (Abadiño), de gran importancia en las comunicaciones de Durango con el Frente de Guipúzcoa; o con el puente de Montón, localizado entre Durango e Iurreta, de vital importancia en la configuración de carreteras de la zona para las comunicaciones de Otxandio y el Frente de Álava con Bilbao y toda la retaguardia. Este puente del Montón, además, se situaba junto a una de las industrias militares de mayor importancia de Durango, como era Mendizabal y el chalet de Mendizabal, donde se había instalado un cuartel de artillería. De todo ello los rebeldes tenían pleno conocimiento.

En 1923, los Ferrocarriles Vascongados habían ejecutado la variante de Lebario, dejando fuera de servicio el trazado que de Durango se dirigía a Matiena por Iurreta. La diputación de Vizcaya adquirió dicho tramo con la intención de habilitar en su lugar la carretera nacional 634, que en la fecha cruzaba el cas-

tzeko. Hipotesi horren aurka argudiatu da bonbardaketaren helburua errepide hori moztea izan balitz ere milizianoek laster aurkituko zutela modua frontera iristeko beste bide batzuetatik.

Durango Ferrocarriles Vascongados enpresaren gune nagusia zen. Batetik, Bilbo-Donostia trenbidea Durangotik igarotzen zen; bestetik, Elorrioko eta Arrazolako adarrekiko lotunea Durango zegoen. Bestalde, Durangoko trenbide-korapiloan tren-azpiegitura asko zeuden: makina eta bagoi biltegiak, material gurgilduna egin, aldatu zein konponetze tailerrak, etab. Kendu ezkerreko Jesuiten egoitza eta Santa Susanako komentua, non bonbek eliza biak txikitu zituzten baina ez kuartel bihurtutako bizitokiak, eta kenduta ere trenbide instalazioak, goian zerrendatu ditugun instalazio militar guztietan ez zen jausi bomba bakar bat ere, ez eurretan ezta euren ingurumarietan ere.

Hainbat artxibotan aurkitutako dokumentuak aztertu ondoren, gaur egun badaukagu arrazoirik pentsatzeko bonbardaketen helburua ez zirela izan Durangoko instalazio militarrek, beste zerbait baino. Horri buruz, hara zer aurkitzen dugun Savoia 81 bonbardero astuneko 24. taldeko 214. eskuadrillaren Diario Storico delakoan:

“Gure eskuadrillak ehiza-aparatuek eskolatuta egin duten Durangoko bonbardaketa ikaragarri hilgarria izan da. Bonbek xedea estali dute eta batek ere ez du hutsegin bere objektiboa”.

co viejo de Durango, pero el proyecto quedó paralizado en 1936 debido al estallido de la guerra civil. Se ha especulado mucho con que uno de los fines del bombardeo fuera cortar la citada carretera, básica para acceder al frente de Gipuzkoa, derribando los edificios anexos sobre la calle Santa María. En contra de esta hipótesis se ha argumentado que en tal caso los gudarís y milicianos habrían podido disponer de una vía alternativa de comunicación con los frentes en breve tiempo.

Durango era el centro neurálgico de los Ferrocarriles Vascongados. Amén de que el ferrocarril Bilbao-Donostia pasaba por la localidad y de que en Durango se encontraba el enlace con los ramales a Elorrio y Arrazola, el nudo ferroviario de Durango albergaba un gran número de infraestructuras ferroviarias: depósitos de máquinas y vagones, talleres para construcción, modificación o reparación de material rodante, etc. Excepción hecha de la residencia de los jesuitas y del convento de Santa Susana, donde el bombardeo alcanzó las iglesias y no los edificios de habitación convertidos en cuarteles, y las instalaciones del ferrocarril, ninguno de los citados emplazamientos militares fue bombardeado. No es que no fueran alcanzados por las bombas, es que ni siquiera fueron bombardeadas sus inmediaciones.

Hoy día, a la luz de los documentos hallados en diversos archivos podemos entrever que el objetivo de los bombardeos fue otro. La escuadrilla 214 del grupo 24 de bombardero pesado [BT] Savoia 81 anotó en su “Diario Storico”:



Andra Maria kalea.

Esaldi horrek argi uzten du bonben helburua Durangoko alde zaharra izan zela. Diario Storico horretan, hizpide hartzen denean apirilaren 9an Bilbon egindako bonbardaketa bat, hauxe esaten da: *“zeharkako helburua [da] etsaiak desmoralizatzea aireko erakustaldi bat eginez argi ikus dezaten alferrik dela borrokatzea hain baliabide indartsuak dituzten indar nazionalen aurka”*.

1937ko maiatzaren 28an, Joachim Von Richthofen teniente koronelak txosten sekretu bat idatzi zuen izenburu honekin: *Espainiako hirien aurkako bonbardaketen eragina (Bizkaiko Frontea)*. Komeni da argitzea Von Richthofen hori, abizen berdina izanagatik, ez zela Kondor Legioko Wolfram Von Richthofen, baizik eta Kondor Legioaren jarduera gainbegiratzen zuen Berlingo operazio-zentroko analista bat. Txosten horretan aztertzen zuen zer eragin izan zuten Durango, Eibar eta Gernikako bonbardaketetan 50 eta 250 kiloko bomba apurtzaile alemaniarrek, 50, 100 eta 200 kiloko bomba italiarrek eta su-bonbek, eta esaten zuen aztertutako herrietako *“eraikinek mendebaldeko gure auzo-herrialdeetako hiri txikietan dauden eraikin gehienek antza dute[la]”*. Bistan da “auzo-herrialde” kontzeptua darabilenean, Polonia daukala gogoan Richthofen-ek, Polonia erasoko baitzuen Alemaniak 1939ko irailean, atek zabalduz Bigarren Mundu Gerrari.

Txostenaren amaieran Richthofen-ek azpimarratzen zuen euskal herrietako eraikinen eta *“antzeko eraikuntza-mailako mendebal-*

“El bombardeo de Durango, ejecutado por nuestra escuadrilla, con una escolta de aparatos de caza, es extremadamente mortífero. El blanco resulta cubierto por las bombas, ninguna de las cuales falla el objetivo.”

Texto que no deja la menor duda sobre el hecho de que el objetivo de las bombas era el casco viejo de la villa de Durango. En el citado *“Diario Storico”*, a la hora de referirse a un bombardeo efectuado el día 9 de abril sobre Bilbao, se reseña como objetivo *“indirecto el desmoralizar a los adversarios con una exhibición aérea que les dé una impresión clara de la inutilidad de combatir a las fuerzas nacionales dotadas de tan fuertes medios.”*

El 28 de mayo de 1937, el teniente coronel Joachim Von Richthofen redactó un informe secreto titulado “Efecto de los bombardeos sobre ciudades españolas (Frente de Vizcaya)”. Conviene aclarar que este militar, aunque ostentara el mismo apellido, no se trataba de Wolfram Von Richthofen, de la Legión Cóndor, sino de un analista del centro de operaciones que supervisaba la actividad de la Legión Cóndor en Berlín. En el citado informe analizaba los bombardeos efectuados sobre Durango, Eibar y Gernika con proyectiles rompedores alemanes de 50 y 250 kilos e italianos de 50, 100 y 200 kilos, así como con bombas incendiarias. En el documento, Von Richthofen señalaba que en las localidades objeto de análisis *“la construcción es similar a la que predomina en las pequeñas ciudades de los países occidentales que nos son vecinos”*, es decir Polonia, con cuya invasión en

deko Europako hiri txikien” arteko antzekotasuna, eta aztertzen zuen nolako kalteak egin zituzten 50 kiloko bomba aleman eta italiarrek, 100 kiloko bomba italiarrek, 250 kiloko bomba alemaniarrek, hiru bomba batera jaurtitzearen teknika italiarrak (*koppelwurf*), su-bomba alemaniarrek eta 100 eta 150 kiloko bomba apurtzaileek, garai hartako babesleku guztiak txikitzeko gauza zirenak. Bere konklusioetan, Joachim Von Richthofen-ek proposatzen zuen 100 eta 150 kilo arteko bomba apurtzaile bat garatzea.

Aintzat hartzekoa da, baita ere, izaera politikoko beste elementu erabakigarri bat, bere eragina izan zuena nazioartean. 1936ko martxoaren 31n Hitlerrek hitzaldi bat egin zuen irtenbide baketsu bat emateko garai hartan Europan zabaltzen hasia zen gerra-giroari, nahiz eta badakigun bake aldarri horiek egiten ari zen bitartean abaila bizian zermatzala aurrera Alemania berrarmatzeko planak. Testuinguru horretan, ezinbestekoa zitzaion denbora irabaztea Frantzia eta Ingalaterraren aurrean, astia izateko behar bezala prestatzeko bere gerra-makineria, hain zuzen ere Espainiako gerra zibilean probatu eta finduko zuena. Beraz, 1936ko martxoaren 31ko hitzaldian, oinarritzat harturik 1923an onartutako Hagako Aire-Gerrarako Arauak (*Hague Rules Of Aerial Warfare*) izeneko hitzarmena, proposatu zuen “armamentua mugatzeko nazioarteko konferentzia bat” egitea, eta bi debeku adostea bertan:

1.- Debekatzera gas-bonbak, su-bonbak eta bomba toxikoak jaurtitzea.

septiembre de 1939 daría Alemania inicio a la 2ª Guerra Mundial.

Al final del informe que subrayaba la similitud de las construcciones de las localidades vascas con “*las de las pequeñas ciudades de Europa occidental de similar grado de edificación*”, el analista germano evaluaba los efectos de los artefactos de 50 kilos (alemanes e italianos), 100 kilos (italianos), 250 kilos (alemanes), la técnica italiana de lanzamiento simultáneo de tres bombas (*koppelwurf*), los efectos de las bombas incendiarias alemanas y el efecto mortal de los proyectiles rompedores de 100 y 250 kilos, frente a los cuales no había refugio lo suficientemente resistente. En sus conclusiones, Joachim Von Richthofen sugería desarrollar un proyectil rompedor de entre 100 y 150 kilos.

Asimismo, es digno de consideración otro posible elemento determinante de índole político con repercusión internacional. El 31 de marzo de 1936, Adolf Hitler pronunció un discurso encuadrable dentro de la campaña que el dictador alemán desarrolló para ofrecer soluciones pacifistas a la situación prebélica europea de aquel momento, mientras continuaba con sus planes de rearme del ejército alemán. Hitler necesitaba ganar tiempo frente a Francia e Inglaterra mientras ponía a punto su gran maquinaria de guerra. Maquinaria que probó y ajustó en la guerra civil española. Ese día, el 31 de marzo de 1936, amparándose en el tratado “Reglas de la guerra aérea” aprobado en 1923, propuso la celebración de una “conferencia internacio-



Andra Maria plaza.

2.- Debekeztea inolako bonbarik jaurtitzea artilleria astunaren, kalibre ertainekoaren eta borroka-fronteen irismenetik kanpo zeuden herri eta hiri irekien kontra.

Deigarria da Durangoko bonbardaketa gertatu baino justu urtebete lehenago egitea Adolf Hitlerrek proposamen hori abiazioaren aurkako defentsarik ez zuten hiri irekiak —Durango eta Gernika bezalakoak— ez bonbardatzeko eta su-bonbak debekatzeko. Eta bitxia da, baita ere, Emilio Mola jeneralak ofentsiba orokorra hilaren 30ean hasteko zeukan desioaren gainetik Alfredo Kindelán—Alemaniako Kondor Legioko burua— izatea ofentsiba hori martxan jarri zuena martxoaren 31n. “Kointzidentzia” horiek hainbat hipotesi edo galdera sortzen dizkigute: Durangoren bonbardaketa ez ote zen izan Frantzia eta Britainia Handiko kantzilergoei zuzendutako mezu bat uler zezaten nolako indarra zuten hegazkin faxistek herri osoak suntsitzeko? Ez ote zen izan Hitlerren erakustaldi bat aditzera emateko zer gerta zitekeen —finean gertatu zen bezala— bere espantsio politikari aurka egiten bazitzaion?

nal para la limitación de armamentos” que deliberara sobre dos puntos:

1.- Prohibición de lanzar bombas de gases, incendiarias y tóxicas.

2.- Prohibición de lanzar bombas de cualquier clase en localidades abiertas que se encontraran fuera del alcance de la artillería pesada, de calibre medio, de los frentes de combate.

No deja de sorprender que el bombardeo de Durango sucediese justo un año después de que Adolf Hitler propusiese limitar los bombardeos sobre localidades abiertas, es decir, carentes de defensas antiaéreas, como era el caso de Durango o Gernika, y el uso en los ataques aéreos de, por ejemplo, bombas incendiarias. También es curioso que, frente a los deseos del general Emilio Mola de iniciar la ofensiva general el día 30, fuera Alfredo Kindelán, jefe de la aviación nacional donde la Legión Cóndor alemana era trascendental, quien determinara que dicha ofensiva se diera inicio el citado día 31 de marzo. Estas “coincidencias” llevan a plantear diversas hipótesis o preguntas: ¿Acaso fue el bombardeo de Durango un mensaje a las cancillerías francesa y británica sobre la capacidad bélica destructiva de las aviaciones fascistas? ¿Fue una demostración de Hitler de lo que podría ocurrir, y de hecho ocurrió, en caso de oponerse a su política de expansión?

BONBARDAKETAREN ONDORIOAK

SECUELAS DEL BOMBARDEO

Durangoko bonbardaketak eragindako kalte materialen eta biktimen gaia aztertu dugunean ahalegin handia egin dugu ahalik eta informazio zehatzena emateko biktimei buruz, badakigulako gai mingarria dela eta polemikaz inguratua egon dela urte askoan.

Kalte materialei dagokienez, ikuspegi orokor bat ematen dugu eta ez gara sartuko aztertzen nola berreraiki zen Durango eta nolako bidegabekeriak gertatu ziren prozesu horretan — kontratista eta industrialari durangar batzuk gerrako presoak erabiltzen bortxazko langile bezala, orubeen salerosketak, ondasun higigarri eta higiezinaren errekisak, orubeen sailkapen urbanistikoaren aldaketak...—, denak ere gerraosteko Durangoko historian idatzi diren orri triste eta itsusienetako batzuk.

Al abordar este aspecto del bombardeo, el más penoso por las pérdidas humanas y económicas que supuso, nos hemos centrado, en el caso de las víctimas, en tratar de ofrecer una información lo más exacta posible sobre las mismas, dado que durante muchos años este asunto ha constituido una cuestión polémica.

Con referencia a los daños, presentamos una visión general de los mismos sin entrar en analizar la reconstrucción de Durango y los factores sociales que se desarrollaron en torno a la misma, como fue la utilización de prisioneros de guerra como mano de obra forzada por parte de contratistas e industriales duranguenses, compra-venta de solares, requisa de propiedades muebles e inmue-

Komeni da ikustea, baita ere, nolakoa zen eraso militar hura sufritu zuen herria eta, batez ere, zein zen orduko Durangoko populazioa, behar bezala interpretatzeko nolako inpaktua izan zuen Durangoko gizartean zauritu eta hildakoen kopuruak. Populazio aldetik bereziki handia ez zen Durango bezalako herri batean hainbeste hil eta zauritu egoteak esan nahi du Durangoko familia gutxi egongo zela bere kideen artean biktimaren bat izan ez zuenik.

Durangoko populazioa nabarmen hazi zen Molaren tropek Gipuzkoa okupatu zuteanean. La Gaceta del Norte egunkariak 1936ko abenduaren 2an argitaratu zuenez, data horretan Durangok 11.042 biztanle zituen, eurretatik 9.502 bertako herritarrak eta 1.540 errefuxiatuak. Abenduaren amaieran, Durangon 1.896 errefuxiatu zeuden, eta 1937ko otsailean, 2.884. Kontuan harturik herriko gazte asko mobilizatuta zeudela frontean, eta errefuxiatuen joan-etorri etengabea, bidea dago esateko –erabateko segurantzarik gabe baina– 1937ko martxoaren 31n Durangok 11.000 biztanle zituela.

bles, modificaciones urbanísticas de solares etc., que constituyen una de las páginas bélicas y posbélicas más tristes y miserables de la historia de Durango.

También es necesario hacer hincapié en las características de la comunidad sobre la cual se ejerció esta acción bélica y, sobre todo, determinar la población de la misma para poder interpretar correctamente el impacto que causó el número de heridos y muertos en la sociedad duranguesa. El alto número de damnificados habidos en una comunidad no muy numerosa hizo que muchas familias duranguesas tuvieran víctimas más o menos cercanas entre sus miembros.

Tras la ocupación de Gipuzkoa por las tropas del general Mola, la población de Durango había crecido en número de manera significativa. Según publicaba *La Gaceta del Norte* el 2 de diciembre de 1936, Durango alberga en dicha fecha a 11.042 personas, de las cuales 1.540 eran refugiados y 9.502 vecinos. A finales de este mes de diciembre, los refugiados ascendían a 1.896. En febrero de 1937, Durango contaba con una población refugiada de 2.884 personas. Teniendo en cuenta que una parte de la juventud se hallaba movilizada en el frente, así como la citada población flotante de refugiados, para el 31 de marzo de 1937 podemos estimar, aunque no sin reservas, que la población de Durango rondaba en torno a los 11.000 habitantes.

BIKTIMAK

Lekukoen arabera, bonbek eta metrailak zuzenean hildako jendeaz gain, eta hondatutako eraikinek —batez ere eliza biek eta Andra Mariko elizpeak— azpian hartutako jendeaz gain, beste herritar mordotzat ere hil eta zauritu zen bonbarderoekin zihoazen ehiza-hegazkinen erasoetan. Aparatu horiek modu indiskriminatuan ehizatu zituzten umeak, gizonak eta emakumeak, batez ere martxoaren 31ko arratsaldeko bonbardaketan.

Martxoaren 31ko goizeko bonbardaketaren ostean, durangarrek ikusi zutenean etsaien hegazkinak bazetozela berriro, ihesari eman zioten Montorreta, Landako, Momotxo, San Roke eta inguruko beste landa batzuetara, pentsaturik seguruago egongo zirela kanpoalde horietan kaleartean baino. Zoritxarrez, laster konturatu ziren oker zeudela. Durango inguruko landa zabal eta agerri haietan jendeak ez zeukan inolako babesik hegazkinen aurka, eta ehiza-hegazkinak amorraturik oldartu zitzaizkien tiro-zaparradaka, lurretik hain hurbil pasatuz non Fiat CR.32 taldeko pilotu italiarrek argi eta garbi ikusten zuten tirokatzen ari ziren herritar haiek umeak eta emakumeak zirela gehienak, defentsarik gabeko zibilak alegia.

Gerra zibilean bonbardatuak izan ziren beste herri batzuk ez bezala —adibidez Gernika—, Durangok Euzkadiko Gobernuaren kontrolpean jarraitu zuen harik eta frankistek apirilaren 28an okupatu zuten arte. Horri esker, Durangon posible izan zen kaltetuei

VÍCTIMAS

Según los testigos presenciales, además de las víctimas causadas directamente por el estallido y la metralla de las bombas y por el derrumbe de los edificios afectados, sobre todo de las dos iglesias y el pórtico de Santa María de Uribarri, los cazas que acompañaban a los bombarderos produjeron igualmente gran número de muertos y heridos. Estos aparatos llevaron a cabo, principalmente en el bombardeo de la tarde del 31 de marzo, una auténtica “cacería” —nunca mejor dicho— indiscriminada de hombres, mujeres y niños.

Tras la experiencia matinal del 31 de marzo, los durangueses, al advertir que regresaban los aviones enemigos, huyeron a las campas de Montorreta, Landako, Momotxo, San Roque y otras del entorno de la trama urbana, donde creían encontrarse libres de la amenaza de las bombas. Sin embargo, la realidad resultó bien distinta. En estos lugares, sin ningún tipo de cobertura antiaérea y en campo libre, la población civil fue ametrallada a discreción por los cazas desde una altura tan baja que los pilotos italianos de los Fiat CR.32 podían distinguir perfectamente que las víctimas de sus acciones eran principalmente niños y mujeres, población civil no beligerante e inermes.

A diferencia de otras localidades bombardeadas durante la guerra civil, como por ejemplo Gernika, la villa de Durango continuó bajo control del Gobierno de Euzkadi hasta su

laguntza ematea, bonbardaketen kalteak baloratzea eta ia biktima guztien gorpuak berreskuratzea.

Bonbardaketa gertatu eta handik denbora gutxira, Euzko Jaurlaritzako Justizia Sailak, garai hartan Jesus Maria Leizaolak zuzentzen zuenak, argitara eman zuen *Durango 1937* izeneko liburuxka bat zeinetan agertzen ziren Durangoko bonbardaketari buruzko hainbat argazki eta dokumentu. Orobat argitaratu zuen hildakoen zerrenda ofizial bat zeinetan ageri ziren bai lehen unean hildako pertsonak, bai ondoko egunetan Bizkaiko hainbat ospitaletan hil zirenak. Euzko Jaurlaritzaren zerrenda hori hamarkada askotan izan da Durangoko biktimen kopurua kalkulatzeko

ocupación por parte de los franquistas el día 28 de abril. Esta circunstancia posibilitó que se pudiera ofrecer asistencia a los afectados, realizar una valoración de los daños causados por los diferentes bombardeos y recuperar casi la totalidad de los cuerpos de las víctimas.

Poco tiempo después del bombardeo, el Departamento de Justicia del Gobierno de Euzkadi, presidido a la sazón por Jesús María de Leizaola, publicó un folleto titulado *Durango 1937*, donde se recogían fotografías y documentos de la villa bombardeada, así como una relación oficial de muertos, tanto de las personas fallecidas en el primer momento como de aquellas que expiraron en distintos hospitales de Bizkaia en jornadas posteriores. La cifra



Bonbardaketan hildakoak, hilerrian pilatuta.

Muertos en el bombardeo apilados en el cementerio municipal.

erreferente ofiziala. Zerrenda nominal bat da —identifikatu ahal izan ziren biktimen kasuan—, eta dakartzan zifren arabera 127 pertsona hil ziren lehenengo minutuetan. Hildako horiek Durangoko Santi Kurutzeko hilerrian lurperatu ziren, honetara: 42 gorpu 1 zenbakiko hobi komunean, eta beste 42 gorpu 2 zenbakiko hobi komunean. Horrez gain, beste 43 biktima lurperatu zituzten hainbat hilobi eta panteoitan. Liburuxkan badator baita ere beste zerrenda bat non jasotzen diren bonbardaketatik egun batzuetara hildako beste 131 pertsona, batzuk Basurtuko Ospitale Zibilean eta beste batzuk beste hainbat herritako osasun-zentroetan.

Badakigu oso zaila dela bonbardaketetako biktimen zerrenda osatu bat egitea, baina gu horixe egiten saiatu gara: Durangoko bonbardaketa guztietan hil ziren pertsonen zerrenda ahalik eta osoena. Horretarako, oinarritzat hartu dugu Leizaolak argitaratu zuen zerrenda, eta gehitu egin dizkiogu Bilboko hainbat komunikabidek (*Euzkadi, Euzkadi Roja...*) 1937ko apirila eta maiatza bitartean argitaratu zituzten datuak. Kontuan hartu ditugu, baita ere, hildakoen senideek emandako datuak eta Durangoko parroketako eta inguruko herrietako heriotza-liburuetan erregistratu ziren izenak. Azkenik, Bizkaiko Artxibo Historikoan gordeta dauden Euzko Jaurlearitzako Osasun Zerbitzuaren fitxetako biktimen izenak ere gehitu ditugu zerrenda osatzeko. Durangoko bonbardaketetan zauritutakoei dagokienez, gai hori ez dugu batere ikertu, zaurituen kopurua argitzea azterlan honen ahalmenetik kanpo geratzen delako.

de víctimas recogida en este listado publicado por el Gobierno Vasco constituyó durante muchas décadas la cifra de referencia oficial de fallecidos. Se trata de una lista nominal—en el caso de las víctimas que fue posible identificar— que indica que 127 víctimas fallecieron de manera inmediata y fueron enterradas en el cementerio de Santa Cruz de Durango. Concretamente, 42 cuerpos en la fosa común número 1 y otros 42 en la fosa común número 2. Además, fueron inhumados los restos de 43 víctimas más en diferentes sepulturas y panteones. El folleto incluye además la relación de otros 131 fallecidos días después en el hospital Civil de Basurto, así como en otros centros sanitarios habilitados en diversas localidades.

Siendo conscientes de la dificultad extrema de confeccionar una relación completa de las víctimas del bombardeo, hemos tratado de completar en todo lo que sea posible el listado de víctimas mortales habidas en Durango en los diferentes bombardeos que sufrió. Para ello, partiendo del listado publicado por Leizaola, procedimos a completar la lista con los datos publicados por los diferentes medios de comunicación de Bilbao (*Euzkadi, Euzkadi Roja...*) entre abril y mayo de 1937. También tuvimos en cuenta los datos ofrecidos por familiares de fallecidos y los registrados en los libros de finados de las parroquias de Durango y pueblos circundantes de donde eran naturales diversas víctimas. Finalmente, completamos la relación con los nombres de las víctimas que constan en las fichas del Servicio de Sanidad del Gobierno de Euzkadi, conservadas en el Archivo


Hainbat iturritatik jasotako datuen arabera, Durangoko bonbardaketako biktimak ez ziren izan 256, Euzkadiko Gobernuak 1937an kalkulatu zuen bezala, baizik eta 361.

Historialari batzuek argitaratutako artikuluetan esaten da litekeena dela Durangoko bonbardaketan hildakoen zerrendan sartuta egotea frontean hildako pertsona batzuk ere, administrazioko dokumentuetan bonbardaketako biktima bezala erregistratuko zirenak. Posible da hori, jakina, baina gure ustez frontean eroritako pertsona horiek ez lukete askorik aldatuko bonbardaketako biktimen benetako kopurua, oso gutxi izango zirelako. Litekeena da, baita ere, biktima batzuk hainbat zerrendatan agertzea batera, Euzko Jaurlaritzaren zerrendan ezezagun gisa erregistratuak izan ondoren, gure zerrendan identifikatuta sartu ditugulako behin argitu eta gero nortzuk ziren euren senideen bidez edo beste iturri batzuen bitartez. Desfase edo bikoiztasun posible horiek kontuan hartuta ere, gure ustez erabat zentzuzkoa da esatea Durangoko bonbardaketetan 336 pertsona hil zirela. Badakizkigu 300 biktimaren izen-abizenak, eta baditugu, baita ere, “ezezaguna” epigrafearekin lurperatutako 61 pertsonatatik 36ren datu pertsonal batzuk (deskribapena, aldean zituzten arropak eta objektuak, e.a.).

Histórico de Bizkaia. Por lo que se refiere a los heridos en los bombardeos de Durango, no hemos desarrollado investigación alguna por considerar que el número de los mismos excedería las posibilidades de este estudio.

Fruto de esta recopilación de datos procedentes de diferentes fuentes, el número de víctimas del bombardeo de Durango, fijado inicialmente en 1937 por el Gobierno de Euzkadi en la cifra de 256, ha quedado aumentado hasta alcanzar la cifra de 361 personas.

En artículos publicados por algunos historiadores se ha indicado que en la relación nominal de víctimas mortales del bombardeo de Durango pudiera haber personas fallecidas en el frente de guerra y registradas en la documentación administrativa como víctimas del bombardeo. Ciertamente, cabe tal posibilidad, pero su repercusión en el montante final de víctimas entendemos que no debería ser muy alto, más bien mínimo, casi anecdótico. También es posible que algunas víctimas hayan sido contadas simultáneamente en varios listados diferentes, al ser incluidos como desconocidos en la lista del Gobierno Vasco y, con posterioridad, ser incluidos en nuestra relación tras haber podido averiguar su filiación por testimonios de familiares o de otras fuentes, con sus identidades completas. Aun teniendo en cuenta estos posibles desfases o duplicidades, entendemos aceptable la cantidad de 336 fallecidos como la cifra de víctimas mortales causadas por los bombardeos de Durango. Conocemos la identidad de 300 víctimas, así como elementos referenciales de 36 personas de las 61 que fueron inhumadas bajo el epígrafe de “identidad desconocida”.



Jesuiten San Jose elizaren barrualdea bonbardaketaren ostean.
Interior de la iglesia de San José de los Jesuitas tras el bombardeo.



Uribarriko Andra Mariko elizpea Artekaletik.
Pórtico de Santa María de Uribarri desde Artekale.

KALTE MATERIALAK

Bonbardaketek eragindako kalte materialen berri jakiteko nahitaez jo behar da 1938an Espainiako Barne Ministerioi Eskualde Suntsituen eta Konponketen Zerbitzu Nazionalak bildu zuen dokumentaziora. Dokumentazio horretan bada “*Gerrak Durangoko (Bizkaia) eraikinetan egindako kalteen zerrenda*” izenburuko atal bat, zeinetan ageri den kaltetutako eraikinen zerrenda bat kaleka antolatua eta datu hauekin osatua: etxe bakoitzaren jabea, eraikinen balioa, kalteen kostua eta mota, eraikina lurrera bota beharra ote den, osorik nahiz zatiz, eta jabeen egoera ekonomikoa. Dokumentuaren izenburua zuzena bada, zerrenda horretan egongo lirateke sartuta Durangoko eraikinek jasandako kalteak 1936ko uztailearen 18an gerra hasi zenetik eta 1937ko apirilaren 28an Mola jeneralaren tropek Durango okupatu zuten arte.

Aztertu ezkerreko zerrenda hori osatzeko eraikin bakoitzaren gainean egin ziren galdetegiak eta Durangoko udal artxiboan dauden beste dokumentu batzuk, argi ikusten da Durangoko eraikinek gerran jasan zituzten kalte materialak martxoaren 31ko eta ondorengo bonbardaketetan gertatu zirela, salbuespen batzuk kenduta. Zerrendaren azken orrialdean datorren laburpenak ideia osoago bat ematen digu bonbardaketek Durangoko eraikinetan egindako kalte materialei eta euren kostu ekonomikoi buruz. Zerrendan jasotako kalteak 1937ko martxoaren 31ko eta apirilaren 2ko eta 4ko bonbardaketen ondorio ez direnean, geroztik gertatutako gerra-

DAÑOS MATERIALES

Por lo que respecta a los daños materiales causados por el bombardeo, hemos de acudir a la documentación que recopiló en 1938 el Servicio Nacional de Regiones Devastadas y Reparaciones del Ministerio del Interior. Entre esta documentación consta un estadillo titulado “Relación de los daños ocasionados por la guerra en los inmuebles de la villa de Durango (Vizcaya)”, donde se hace una relación de los edificios afectados ordenada por calles, indicando el propietario de cada casa, el valor de los inmuebles, la cuantía de los daños causados, además de la clase de los mismos, especificando si era necesario el derribo total o parcial del inmueble por los daños sufridos, así como la situación económica de los propietarios. Atendiendo al título del documento, esta relación incluiría los daños sufridos por los inmuebles de la villa de Durango a lo largo de toda la guerra, desde su inicio el 18 de julio de 1936 hasta la ocupación de la localidad por las tropas del general Mola el día 28 de abril de 1937.

El estudio de los cuestionarios individuales de cada edificio, confeccionados para formar la “Relación”, así como otros documentos custodiados en el archivo municipal durangués, nos muestra claramente que, salvo alguna excepción, los daños materiales sufridos por los inmuebles de Durango durante la guerra fueron causados por los bombardeos de los días 31 de marzo y posteriores. La “Relación” que citamos presenta en su última página un resumen que permite hacernos una idea

ekintzen ondorio dira, eta kalte txikiagoak dira bonbardaketek egindakoak baino.

Eraikin kaltetuak

- 70 eraikin osorik hondatuta edo lurreratu beharrak
 - 5 eraikin zatiz hondatuta
 - 229 eraikin gutxi-asko kaltetuta
 - Hiru eliza erabat hondatuta:
 - Jesuiten eliza
 - Uribarriko Andra Maria eliza
 - Santa Susana eliza
 - Bi komentu eta egoitza bat:
 - Santa Susana komentua
 - San Frantzisko komentua
 - Jesuiten egoitza
 - Udalaren 10 eraikin
 - Monumentuak: Kurutziagako gurutzea.
- Eraikinak, guztira:321**

Hondamenaren kostu ekonomikoari dagokionez, laburpen hau dakar zerrendak:

- **Elizak eta komentuak:**
1.110.000 pezeta.
 - **Udal-eraikinak:**
317.000 pezeta.
 - **Monumentu artistikoa (Kurutziagako gurutzea):**
2.500 pezeta.
 - **Astarloa Etxea (Batzokia):**
40.000 pezeta.
- Eraikin partikularrak:**
- **Egoera ekonomiko oso oneko jabeak:**
766.771 pezeta.

completa de los daños materiales ocasionados en edificios de Durango por los bombardeos aéreos, así como su cuantía económica. Los daños reportados en la “Relación” no directamente relacionados con los bombardeos fueron ocasionados por acciones bélicas que se produjeron con posterioridad a las incursiones aéreas del 31 de marzo y 2 y 4 de abril de 1937, y causaron daños de una cuantía menor a los hechos que relatamos.

Número de edificios afectados

- 70 inmuebles derribados o a derribar totalmente
 - 5 derribados parcialmente
 - 229 con daños de mayor o menor cuantía
 - Tres iglesias hundidas totalmente:
 - Iglesia de los PP Jesuitas
 - Iglesia de Santa María de Uribarri
 - Iglesia de Santa Susana
 - Dos conventos y una residencia:
 - Convento de Santa Susana
 - Convento de San Francisco
 - Residencia de los PP Jesuitas
 - 10 edificios municipales
 - Monumentos (Cruz de Kurutziaga)
- Edificios en total321**

Con referencia a los daños económicos, se nos presenta este resumen:

- **Iglesias y conventos:**
1.110.000.- pesetas
- **Edificios municipales:**
317.000.- pesetas
- **Monumento artístico (Cruz de Kurutziaga):**
2.500.- pesetas

- **Egoera ekonomiko oneko jabeak:**
868.193 pezeta.
 - **Diru-baliabide gutxiko jabeak:**
910.414 pezeta.
 - **Egoera ekonomiko txarreko jabeak:**
225.023 pezeta.
- GUZTIRA:..... 4.239.901 pezeta.**

4.239.901 pezetako zenbateko hori eraikin erraustuen balorazioa da, eta ez ditu kontuan hartzen txikitutako etxeetako altzarien kostua ez kaleko altzariena, horiei buruz ez baitzen egin, guk dakigula, inolako tasaziorik.

Lur jotako edo jotzeko arriskuan geratutako eraikinak ondoko kale hauetan zeuden:

- **Barrenkalea:** 25 eraikin kaltetuta, euretatik bi osorik bota beharrak
- **Artekalea:** 35 eraikin kaltetuta, euretatik 12 osorik bota beharrak
- **Goenkalea:** 27 eraikin kaltetuta, euretatik 13 osorik bota beharrak
- **Kalebarria:** 43 eraikin kaltetuta, euretatik 22 osorik bota beharrak eta 2 zatiz.
- **Zeharkalea:** 10 eraikin kaltetuta, euretatik 5 osorik bota beharrak
- **Andra Maria:** 20 eraikin kaltetuta, euretatik 7 osorik bota beharrak
- **Zumalakarregi:** 31 eraikin kaltetuta, euretatik 3 osorik bota beharrak
- **San Agustinalde:** 3 eraikin kaltetuta, euretatik 2 osorik bota beharrak
- **Egia jenerala:** 15 eraikin kaltetuta, euretatik bat osorik bota beharra eta beste bat zatiz

- **Astarloa Etxea (Batzoki):**
40.000.- pesetas
 - **Fincas de propiedad particular:**
 - **Propietarios en muy buena posición económica:**
766.771.- pesetas
 - **Propietarios en buena posición económica:**
868.193.- pesetas
 - **Propietarios de escasos recursos económicos:**
910.414.- pesetas
 - **Propietarios en mala posición económica:**
225.023.- pesetas
- TOTAL 4.239.901.- pesetas**

Esta cuantía de 4.239.901 pesetas correspondía a la valoración de los edificios destruidos, no reseñándose en esta valoración los daños causados a los elementos muebles que albergaban las viviendas destruidas, calles, mobiliario urbano... sobre los que no se hizo, que se conozca, ninguna tasación.

Los edificios derribados o a derribar se situaban en las siguientes calles:

- **Barrenkalea:** 25 edificios afectados, de ellos dos condenados al derribo
- **Artekalea:** 35 edificios afectados, de ellos 12 de derribo total
- **Goenkalea:** 27 edificios afectados, de ellos 13 condenados al derribo
- **Kalebarria:** 43 edificios afectados, de ellos 22 condenados a derribo total y dos a derribo parcial
- **Zeharkalea:** 10 edificios afectados, de ellos cinco condenados al derribo

- **Kurutziaga:** 25 eraikin kaltetuta, eurretatik bat osorik bota beharra
- **Santa Ana:** 3 eraikin kaltetuta, eurretatik bat zatiz bota beharra

Nahikoa da begiratu bat ematea kaltetutako eraikinen zerrendari ikusteko 304 etxe kaltetuetatik 294 (%96,71) alde zaharrean eta inguruko errebaletan zeudela. Azpimarratzekoa da, baita ere, bombardaketen ostean bota edo eraitsi behar izan ziren eraikin guztien %100 Durangoko alde zaharrekoak zirela. Datu horiek berretsi egiten dute gorago esan duguna, hots, Durangoko erdialdea edo alde zaharra izan zela bombardaketa planifikatu zutenen helburua.



Kanpatorrosteta.

- **Andra Maria:** 20 edificios afectados, de ellos siete condenados al derribo
- **Zumalakarregi:** 31 edificios afectados, de ellos tres condenados al derribo
- **San Agustinalde:** 3 edificios afectados, de ellos dos condenados al derribo
- **General Eguia:** 15 edificios afectados, de ellos uno condenado a derribo total y otro a derribo parcial
- **Kurutziaga:** 25 edificios afectados, de ellos uno condenado al derribo
- **Santa Ana:** 3 edificios afectados, de ellos uno condenado a derribo parcial

Una simple mirada a la relación de los edificios afectados muestra que de las 304 casas afectadas 294 se hallaban enclavadas en el casco viejo y arrabales aledaños, es decir el 96,71% del total de inmuebles dañados. También es de reseñar que pertenecían a esta zona de la villa el 100% de los inmuebles que fue necesario derribar total o parcialmente. Estos datos vienen a ratificar lo que en páginas precedentes ya hemos indicado, es decir, que este espacio urbano fue el objetivo de los planificadores del bombardeo.

Los gastos de reconstrucción de las viviendas particulares afectadas por los bombardeos corrieron a cargo de los propietarios de los edificios dañados. Este hecho hizo que muchos de los inmuebles arruinados no fueran reedificados hasta transcurridas varias décadas, cuando tras una posguerra de feroz represión y terribles abusos amparados por el entramado jurídico franquista la dictadura comenzó a relajar el control político-social



Goenkalea Andra Maria kaletik / Goenkalea desde Andra Maria kalea

Nola etxe-jabeek euren ordaindu behar izan zuten bonbek kaltetutako etxebizitza partikularrak berreraikitze lanen kostua, eraikin hondatu asko ez ziren berreraiki handik hamarkada batzuetara arte, hau da, pixka bat biguntzen hasi zen arte diktadurak garaituen kontra aplikatu zuen kontrol politiko-sozial gogorra, gerraosteko aurreneko urteetan errepresio basatiz eta gehiegikeria izugarri obratu zena frankismoren tresna juridikoak erabilita. Makina bat jabeek saldu behar izan omen zuten bonbek jotako beren orubea estualdi ekonomikotik irteteko. Etxe hondatuen jabe errepublikazale askok egoera gogorrek bizi behar izan zituzten —isunak, espetxeratzeak...—, eta azkenean ez zuten izan beste irtenbiderik euren ondasunak huskeria baten truke saltzea baino.

que venía ejerciendo sobre la población vencida. Muchas veces hemos oído tristes historias sobre ventas de los solares afectados por los bombardeos por necesidad económica de sus propietarios. Numerosos dueños de las fincas afectadas, afines al bando perdedor, debieron hacer frente a difíciles situaciones de vida, multas, prisión etc., que les llevaron a malvender sus propiedades.

ERREAKZIOAK

BONBARDAKETAREN OSTEAN

REACCIONES

AL BOMBARDEO

Martxoaren 29an, Erresuma Batuko bederatzi pertsona ospetsu, buru zutela Canterburyko katedraleko Hewet Johnson deana, Londresetik Parisera abiatu ziren agintari errepublikarrek gonbidatuta zuzenean ezagutzera gerraren eta Euskadi autonomoko bizitza sozialaren errealitatea. Behin gainditu ondoren Foreign Officek jarri zizkien trabak, taldea Parisera iritsi zen, eta han oztopo burokratiko gehiago aurkituta, berriro atzeratu behar izan zuten bi egun Espainia errepublikanorako bidaia. Oztopo guztiak gainditu ondoren, bederatzi britainiarrak Akitaniako Tolosara iritsi ziren, eta handik taldeko bi kide Bartzelonara abiatu ziren trenez, beste bi Valentziara hegazkinez, eta gainerako bostak, hegazkinez baita ere, San-

El 29 de marzo partió de Londres hacia París con destino a Euskadi una comisión inglesa encabezada por Hewet Johnson, deán de la catedral de Canterbury. Esta comisión, formada por 9 personalidades británicas, había sido invitada por las autoridades republicanas para que sus miembros pudieran conocer sobre el terreno la realidad de la guerra y de la vida social en la Euskadi autónoma. Tras superar las dificultades interpuestas a su misión por el Foreign Office, los miembros de la comisión llegaron a París, donde de nuevo vieron retrasado su viaje a la España republicana por espacio de dos días, debido esta vez a trabas burocráticas. Superadas éstas, las nueve personalidades británicas pudieron llegar a Toulouse, desde



1937ko apirilaren 1eko Euzkadi egunkaria.

Diario Euzkadi, 1 de abril de 1937.

tanderra, eta Santanderretik gero, apirilaren 2an, Bilbora. Hauek ziren Bizkaiko hiriburura iritsi ziren bost behatzaile britainiarrak: Hewet Johnson, Canterburyko katedraleko deana; John Macmurray, Londresko Unibertsitateko filosofia irakaslea; D.R. Davies, Londresko Fronte Popularreko exekutibako kidea; Margieta Beer, idazle eta hizlaria; eta Monica Whately, Londresko *County Council*-eko kidea. Bilbora heldu bezain laster, apirilaren 2ko arratsaldean bostak Durangora joan ziren, bertatik bertara ikusteko martxoaren 31ko bonbardaketen ondorioak. Eta hara non, egun horretan bertan, 14:30ean,

donde dos de sus miembros partieron en tren hacia Barcelona, otros dos por avión a Valencia, y los cinco restantes, también en avión, a Santander. Una vez en la capital cántabra, estos últimos cinco comisionados se dirigieron a Bilbao el dos de abril. La delegación que finalmente llegó a Euzkadi la formaban, además de Hewet Johnson, deán de la catedral de Canterbury, John Macmurray, profesor de filosofía de la Universidad de Londres, D.R. Davies, miembro de la ejecutiva del Frente Popular de Londres, Margieta Beer, escritora y conferenciante, y Monica Whately, miembro de County Council de Londres.

Durango inguruan zeudela, *Savoia 81* italiarrek berriro bonbardatu zuten Durango euren begien aurrean. Eraso horren lekuko zuzenak izan ondoren, behatzaile britainiarrek salaketa-idazki bat prestatu zuten, egun batzuk geroago nazioartean zabalduko zena.

“Behean sinatzen dutenek 1937ko apirilaren 2an bonbardero etsaiak ikusi dituzte Durangoko herria bonbardatzen. Bi ordu geroago, herrian sartu ginen eta geure begiekin ikusi genuen bonbardaketa honek eta aurreko erasoek egindako triskantza. Elizak, batez ere, suntsituak izan dira, eta baita ere komentu bat zeinetan jende asko hil zen, euren artean meza esaten ari zen apaiz bat eta moja mordo bat”.

Txundituta ikusi zutenarekin, komisionatu britainiarrek hainbat hitzaldi eman zituzten eta salaketa-ekitaldiak egin zituzten munduari ezagutarazteko Durangon ikusitakoa. Protesta-ekitaldi horien artean azpimarratzekoak dira Canterburyko deanak Londresen eman zituen hitzaldiak eta irrati-solasaldiak.

Martxoaren 31ko bonbardaketak berehalako oihartzuna izan zuen Estatuko eta nazioarteko prentsan. Gertaeren biharamunean, Bilboko egunkariek albistea eman zuten, baina ez oso sakon, seguru asko gudarien eta populazio zibilaren moralak ez kolpatzeko, horixe baitzen azken finean erasotzaileen helburua. Bitxia bada ere, txikitutako eraikin eta ondasunen argazki asko argitaratu ziren, baina gorpuen irudirik ia batere ez. Argazkietan bakarrik ikusten ziren

Nada más llegar, la tarde del día 2 de abril los cinco observadores británicos se trasladaron a Durango para conocer *in situ* los efectos de los bombardeos del 31 de marzo. A las 14:30 horas, cuando se hallaban en las proximidades de Durango, fueron testigos de un nuevo bombardeo de los Savoias 81 italianos. La observación directa del bombardeo del día 2 de abril llevó a la delegación británica a redactar una denuncia que fue difundida internacionalmente días más tarde.

“Los infrascritos han visto el bombardeo del pueblo de Durango por aeroplanos de bombardeo enemigos el 2 de abril de 1937. Dos horas más tarde entramos en el pueblo y pudimos contemplar la destrucción operada por éste y anteriores “raids”. Las iglesias, principalmente, han sido destruidas, así como un convento, en las que muchas personas, incluyendo un sacerdote que estaba celebrando y un buen número de monjas, han sido muertas.”

Impresionados por los hechos, los comisionados británicos ofrecieron diversas conferencias y protagonizaron actos de denuncia para dar a conocer al mundo la experiencia vivida *in situ*. Cabe destacar entre estos actos de protesta las conferencias y charlas radiofónicas ofrecidas en Londres por el deán de Canterbury.

El bombardeo halló rápido y amplio eco en la prensa nacional e internacional. Al día siguiente de ocurrir los hechos, los periódicos de Bilbao dieron la noticia, pero de una manera no muy amplia. Esto se debió, con toda seguridad, al deseo de evitar el decaimiento



1937ko apirilaren 6ko Parisko *Ce Soir* egunkaria.
 Diario *Ce soir* de Paris, 6 de abril de 1937.

